



**EUSKO LEGEBILTZARREKO OSOKO BILKURA
POLITIKA OROKORRARI BURUZKO SAIOA**

2008ko irailaren 26a.

LEHENDAKARIAREN HITZALDIA

Legebiltzarreko burua, legebiltzarkide jaun eta andreok,

Egunon danori.

Gaur ekin behar diogu Politika orokorrari buruzko azken eztabaidari VIII. legealdi honetan. Legealdi hau oso sakona izan da, eta emankorra ere bai. Euskadiko ekonomiaren bigarren eraldaketarako zutabeak jarri dira, eta aurrera egin dugu gizarte solidario eta orekatuagoa eraikitzeko bidean.

Bakeari bide emateko beste aukera bat ere izan dugu, baina azkenean ezerezean geratu da. Tamalez, ETAre indarkeria hemen da berriz ere gure artean, eta hala erakutsi nahi izan digute azken atentatuak eginda, baina, seguru nago, legealdi honetan Bakea iritsi nahian urratu dugun bideak ez duela inola ere atzera bueltarik. Ez dago atzera egiterik.

Azkenik, normalizazio politikoa lortzeko prozesu baterako oinarriak ezarri ditugu, euskal gizarteak erabakitzeke duen eskubidea printzipio demokratikotzat hartuta. Konstituzio Auzitegiak irailaren 11n, Espainiako Gobernuburuak hala eskatuta, zartada handia eman du demokraziaren aurka, eta datorren urriaren 25ean euskal gizarteari galdetzea galarazi du, nahiz eta Eusko Legebiltzarrak gehiengoz onartu zuen galdeketa hori. Hala ere, erabakitzeke dugun eskubide hori hemen dago mahai gainean eztabaidagai; eskubide hori hemen dago gure artean, eta hemen geldituko da betiko.

Legealdi honetan ziklo politiko berri bati ekin diogu, eta bide horretatik, egunen batean, ez hain berandu ere, lortuko dugu eskubide hori erabiltzea euskal gatazka konpontzeko.

Euskal gizarteari agindu genizkion konpromisoak zertan diren eta zein neurritan bete diren aztertzeke ordua da, beraz. Orain arte egin dugun bidea garrantzitsua izan da, baina, oraindik ere, lan eta ahalegin handia dugu egiteke aurrera begira.

Hori guztia azaltzeko, bost atal nagusi bereiziko ditut nire hitzaldian:

- I. atala.- Legealdi honek ondo bete ditu euskal gizarteari agindutako hiru konpromisoak: *gizarte-konpromisoa, konpromiso etikoa eta konpromiso demokratikoa*.
- II. atala.- “*Gizarte-konpromisoa*” betetzeko bidean aurrera egin dugu, eta Giza Garapen Iraunkorrean Euskadi aitzindaria da eta aurre-aurrean dago.
- III. atala.- Aurrera egin dugu, baina oraindik ere lan handia dugu egiteke. Ekonomia-krisiari aurre egiteke, Jaurlaritzaren jarduera bost ardatz hauetan oinarrituko da, lehentasun sozial eta instituzionalak aintzat hartuta: Inbertsio Gehiago. Berrikuntza Gehiago. Nazioartekotze Gehiago. Gizarte Kohesio Gehiago. Eta Autogobernu Gehiago.
- IV. atala.- Aurrera egin dugu Giza Eskubideen eta Bakearen alde hartu dugun “*konpromiso etikoa*” betetzeko bidean.
- V. atala.- Aurrera egin dugu, euskal gizarteak erabakitzeke duen eskubideari lotuta, hartu dugun “*konpromiso demokratikoa*” betetzeko bidean.

I. ATALA:

LEGEALDI HONEK ONDO BETE DITU EUSKAL GIZARTEARI AGINDUTAKO HIRU KONPROMISOAK: LEHENIK, “GIZARTE-KONPROMISOA”, GIZAKIAREN GARAPENA IRAUNKORRA IZAN DADIN; BIGARRENIK, KONPROMISO ETIKOA, GIZA ESKUBIDEEN ETA BAKEAREN ALDE; ETA, HIRUGARRENIK, KONPROMISO DEMOKRATIKOA, NORMALIZAZIO POLITIKOAREN ETA ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN ALDE.

Inbestidura-saioan iragarri nuenez, hiru konpromiso horiek izan dira legealdi osoan Jaurlaritzaren kudeaketa-lanean gidari; eten gabe izan ditugu aurrean konpromiso etikoa, konpromiso demokratikoa eta gizarte-konpromisoa.

Ahalegin handia egin dugu, bai, konpromiso horiek betetzen, eta ez dugu langintza horretan bakarrik jardun. Guzti-guztiekin hitz egin dugu, inor bazterrean utzi gabe, eta legebiltzar-talde guztiekin akordioak lortu ditugu, bidean aurrera egiteko. Bene-benetan, uste dut aurrera egin dugula, eta asko, gainera. Badakit, bai, oraindik ere eragozpen eta traba handiak izango ditugula hasitako bide honetan, baina, horren aurrean, gizartea dugu gure alde, eta gizarte hori ez dago iraganera bueltatzeko prest. Horrexek ematen digu benetan indarra, bidean aurrera egiteko.

I.1.- Eusko Jaurlaritzak gogotik egin du lan, aurrera egiteko akordioak lortze aldera, eta, aniztasuna errespetatzea izan da beti jarduteko ardatz eta oinarri.

Komunikabideetan, interesak tarteko, haserre politikoak ondo handiagoturik agertu badira ere, haserre horiez haratago, herritarrek jakin behar dute legealdi hau negoziazio- eta akordio-legealdia izan dela.

Arduraz jokatuta eta halaxe sinistuta, elkarrizketarako bideak beti izan ditugu zabalik, indar politiko guztiekin, salbuespenik egin gabe. Akordioak lortu ditugu oposizioko legebiltzar-talde guztiekin –bai Alderdi Sozialistarekin, bai Alderdi Popularrarekin, bai EHAKrekin, baita Aralarrekin ere-, eta horri esker egin dugu aurrera Euskadiko herritarren ongizatea hobetzeko bidean.

Elkarrizketarako eta negoziazorako espiritu horrek eman ditu, bai, fruituak, eta, oraindik legealdiaren azken zatia falta bada ere, harrotasunez esan dezakegu legealdi hau sakona eta eraginkorra izan dela. Harro egon behar dugu guztiok, denok egin dugulako lan, emaitza horrelakoa izan dadin.

Legealdi honetan orain arte onartu ditugun 35 legeetatik ia guztiek, gutxienez, lau legebiltzar-talderen sostengua izan dute, eta mugarriztat hartzeko moduko datua da hori Legebiltzar honen historian.

Lege horietako asko oso garrantzi handikoak izan dira, hala nola, Lurzoruaren Legea, Terrorismoaren biktimei elkartasuna erakusteko Legea, pentsiorik baxuenak gutxieneko soldataren parera eramateko Gizarte Bereizkeriaren Aurkako Legea, Uren Legea, Familia Bitartekaritzako Legea, Garapenaren aldeko Lankidetzarako Legea eta Aurrekontuen Legeak, oro har.

Beste euskal erakunde batzuekin ere indartu dugu lankidetzaz, bai Aldundiekin bai Udalekin, eta Espainiako Gobernuarekin ere bai. Emaitzak hortxe daude agerian; besteak beste, hortxe ditugu Ekarpenen Legea, Kupoaren Lege berria, euskal trenbidean Y grekoa eraikitzeko akordioa, edo espalazio bidezko neutroiak ikertzeko zentro europarra hona ekartzeko elkarrekin aurkeztu genuen Euskadiren hautagaitza.

I.2.- Euskal gizartearekin ditugun konpromisoak bete ditugu. Aurrera egin dugu.

Izango dugu aukera hurrengo ataletan, etika, demokrazia eta aurrerabide sozialarekin dugun konpromisoa zenbateraino bete dugun zehazki aztertzeko, baina ezertan hasi aurretik esango dizuet, arrandikeriari edo autokonplazentziari lekurik utzi gabe, hiru arlo horietan egin dugula aurrera legealdi honetan.

Etikaren ikuspuntutik, gaur egun, gizarteak orain dela lau urte baino askoz tinkoago dago bortxakeriaren aurka, biktimekiko elkartasunaren alde eta giza eskubideen defentsaren alde.

Demokraziaren ikuspegitik, euskal gizarteak inoiz baino barneratuago dauka erabakitzeko eskubidea dela gatazka politikoak bake bidez konpontzeko irtenbidea.

Eta ikuspegi sozialetik begiratuta, aurrera egin dugu Euskadi aberatsago eta orekatuago eraikitzeko lanean. Egia da abagune ekonomikoa ez dela ona eta horri aurre egin beharrean garelako, baina, aldi berean, ezin dugu ahaztu gure historiako errenta-maila aberatsena dugula, eta gaur egun garai batean ez ziren tresna berriak ere baditugula, elkartasun sozialaren esparruan.

Berriz ere esango dut: hori guztia ez da soil-soilik Jaurlaritzaren meritua. Ez dugu guk geuk bakarrik lortu. Denok ahalegindu garelako eta lankidetzan jardun dugulako egin dugu aurrera. Arrakasta, beraz, guztiona da.

I.3.- Hiru oztopo nagusi ditugu aurrez aurre: ETAk su-etena hautsi zuen, Herri-galdeketa Legea etenda utzi du, eta nazioarte osoan krisialdi ekonomikoa dago.

Ez gaude, badakit, “Aliziaren Lurralde Miresgarrian”, ezta gutxiago ere. Aurrera egin dugu, bai, baina ez dut hemen ikuspegi idilikorik margotuko. Arazo larriak ditugu, oztopo handiak ditugu, eta traba egiten digute bidean; bai, eragozpen dira Bakea, Normalizazio Politikoa, eta gure ongizatea lortzeko bide horretan.

ETA da, oraindik ere, oztopo nagusi Bakea eta Normalizazio Politikoa lortzeko bidean. Horra hor azken atentatuak eta Luis Conde de la Cruz Espainiako armadako brigadaren hilketa egin berria. Su-etena apurtu izana zaplastako ederra izan zen, indarkeriaz eta terrorismoaz nazkatuta dagoen gizarte batentzat. Euskal gizartearen gehiengoak eskatzen dio ETArri argi eta garbi erakutsi dezan terrorismoaren gaitz astun hori amaitu nahi duela, behin eta betiko. Erabat seguru nago, indarkeria ikuspegi politiko, sozial eta moraletik etengabe gaitzetsiz gero, eta euskal gizarteak berak modu demokratikoan esandakoa entzunez gero, horrek erabat lagunduko duela, ETAREN indarkeriak mende erdiz ekarri duen zorigaitzoko drama izugarri hori buka dadin.

Normalizazio politikoa iristea, hau da, euskal gatazka politikoa konpontzea, ETAREN indarkeria alde batera utzita; horixe da Herri modura dugun beste helburu nagusia. Gatazka historiko hau konpondu ahal izateko, beharrezkoa da, nahitaez, Normalizazio-akordioa lortzea, inor baztertu gabe; akordio horretan aitortuta egon behar du Euskal Herria badela munduan, eta bere etorkizunaz erabakitzeke eskubidea duela.

Ikuspegi horretatik begiratuta, normalizazio politikoaren bidean oso oztopo handia izan da Herri-galdeketa debekatzea, alegia, Eusko Legebiltzarrak gehiengoz onartu zuen herri-galdeketa galaraztea, hala agindu baitzuen Konstituzio Auzitegiak irailaren 11n, Espainiako Gobernuburuak hala eskatuta. Ezin da sinistu ere egin, orain eta hemen, XXI. mendean, Europaren bihotz-bihotzean, auzitegi batek loteslea ez den herri-galdeketa bat galaraztea. Konstituzio Auzitegiak emandako erabakiak eraso egiten dio aurrez aurre gure autogobernu politikoari, eta, horrez gainera, oinarrizko printzipio demokratikoak hausten ditu; egoera horri erantzuna eman behar zaio; erantzun lasai eta baketsua, baina, aldi berean, erantzun tinkoa eta sendoa.

Eusko Jaurlaritzako kideok, norik bere izenean, eta Euskadiko milaka eta milaka herritarrek, gure ahotsa entzunaraziko dugu European, gure iritzia emateko eta politikan parte hartzeko dugun eskubidea eman diezaguten berriz, eskubide hori, bidegabe eta zentzugabe, etenda baitaukagu orain. Ildo horretatik, adierazpen-agiri bat prestatu dugu, gizaki garenez dagozkigun eskubideak urratu direla salatzeke, eta alderdi politikoek herri-galdeketa alde European nahiz nazioartean bideratzen dituzten gainerako eskaera eta ekimen guztiekin bat egiteke.

Bukatzeke, hirugarren oztopo handia, gure oraingo ongizatea kolokan jartzeko arriskua dakarrena: nazioarteko krisialdi ekonomikoa. Krisialdi orokorra da; Europa gainean dago, eta berariaz Espainiako estatuan du eragina.

Orain arte, behintzat, gure inguruko herrialdeak baino hobeto ari gataizkio eusten nazioarteko krisiaren lehen oldarrari; baina gu ez gara uharte batean bizi, eta geu ere sufritzen ari gara

krisiaren eragina; gutxienez, datorren urtean zehar ere iraungo du krisiak, baina gu horri aurre egiteko moduan gaude; prest.

Euskal Erakundeok aitzindari gara arlo instituzionalean, eta behar adinako gaitasuna dugu finantza aldetik ere krisiari aurre egin eta krisia gainditzeko.

Hitzaldi honetan azalduko ditut geroago, orain arte zer egin dugun arlo horretan eta aurrera begira zer-nolako ekimenak jarriko ditugun martxan, gure ongizatea lortzeko bidean dagoen oztopo horri, alegia, krisi ekonomikoari, aurre agin ahal izateko.

I.4.- Eusko Jaurlaritza eta euskal gizartea traba eta eragozpen guztiak gainditzeko prest gaude Giza Garapen Iraunkorra iristeko lanean eta Bakea eta Erabakimena gureganatzeko bidean aurrera egin dezagun.

Aurrera egin dugu, bai, baina ez dut ezkutatu, ezta gutxiago ere, aurrean erronka handiak ditugula gainditzeko.

Gizarteak badaki eragozpenei aurre egiteko gai dela, eta hori dugu geure alde. Geure burua ondo prestatuta dugu; inoiz baino hobeto. Oztopoak suspergarri ere izan litezke; aurrera egiteko aukera ezin hobea dugu. Abagune hau geure mesedetan erabiltzeko gai bagara, aurrerapauso izugarria egingo dugu gizarte honen nahiak eta itxaropenak bete daitezzen, gizarte honek benetan merezi ditu-eta Bakea, elkarbizitza eta gizarte-aurrerabidea.

Jaurlaritza prest dago, eta, ohore handiz aitzindari izatea egokitu zaidanez, neu ere prest nago, etenik gabe lanean jarraitzeko, euskal gizarteari agindutako konpromisoak eta itxaropenak bete daitezzen.

II. ATALA:

GURE “KONPROMISO SOZIALA” BETETZEN JARRAITU DUGU, ETA EUSKADI GIZA GARAPEN IRAUNKORRAREN ABANGOARDIAN JARRI DUGU.

II.- 1.- Nazioarteko krisi ekonomikoak lanean “harrapatu” gaitu. Gobernuak 2008an kudeaketan trinkoa egin du.

Horren erakusle, hilabete honetan bertan aurrera eramandako ekimenak, hala nola Arcelor enpresarekin hitzarmena sinatu izana, altzairugintzaren arloko mundu mailako ikerketa-zentro bat sortzeko; Ekintzaile XXI Funtzari emandako bultzada, enpresa berrien sortzaileen arloan. Enpresari autonomoei laguntzeko eta merkataritza-sektorea gaztetzeko beste programa bat (horren azken xehetasunak finantza-erakundeekin lotzen ari gara une honetan). Ikastetxeetan inbertsioak egiteko ohiz kanpoko plana, 700 milioi eurokoa. Nekazaritza eta elikadurarako politikaren lege-egitasmoa, Garapenerako Lankidetzaren Gida-plana, eta hilaren 23an bertan, asteartean, gazteriaren lege-egitasmoa ere onartu zen. Eta esan dezakegu horiek guztiak

historikotzat jo dezakegun ikasturte politiko bateko izebergaren goiko aldea baino ez direla, abiarazitako ekimenen intentsitate eta garrantzia dela eta.

Aurten aurrera eramandako gainontzeko ekimenak aipatze hutsak berretsiko digu Eusko Jaurlaritza egunero lanean aritu dela krisiari aurre hartu eta euskal herritarrek dituzten arazoei irtenbidea aurkitzen saiatzeko.

Eta aurrekoa esanda, gizarte arloan garrantzi handia duten ekimenak abiarazi eta egin ditugula esan nahi dut; besteak beste, hauexek:

Ekarpen deituriko Proiektu Estrategikoen Funtsa, 400 milioi euro izango dituen. *Ekonomia Azkartzeko Plana*, 12.800 milioi euro izango dituen. *Innobasque* abiarazi dugu. Nazioarteko lehen ikertzaileak *Ikerbasque*-ren bidez lanean hasi dira. Turismoaren arloan ikertzeko *Tourgune* ikerketa-zentroa abiarazi dugu. *Finantzen arloko Euskal Institutua* onartu da. Baita Arrantza-arloaren plan estrategikoa ere. Nekazaritza eta elikaduraren arloko industriak sustatzeko plana ere bai. Ordezko energien arloko ikerketa-zentroa, "*Energigune*" deiturikoa, jarri da martxan. Sukal-Leku Fundazioa eratu da, gastronomiaren arloan ikertzeko.

Euskal Y-ari bultzada eman zaio. Metroaren sareak Santurtzirantz egiten jarraitu du. Laster Gasteizko tranbia egiteko lanak amaituko dira. Biodibertsitatearen Urdaibaiko Zentroa irekiko da. *Klimaren aldaketa aztertze*ko bikaintasunezko lehen ikerketa-zentroa sortu da. *Uraren Euskal Agentzia* jarri da martxan. *Kutsatutako Lurrak berreskuratzeko plan berria* abiatu da, 2012. urtera arte.

Derrigorrezko irakaskuntzarako *euskal curriculum*a onartu da. *Unibertsitaterako euskal plana* onartu da.

Etxepare Institutuaren patronatua sortu da. *Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan* berria onartu da. Zerbitzuen sektorean diharduten enpresa handietan euskararen erabilera arautzeko dekretua ere bai. "*Euskadi Kirola Fundazioa*" eratu da, nazioarteko eliteko euskal kirola sustatzeko. Hitzarmena sinatu da *Euskal Liburutegi Nazionala* Koldo Mitxelena zentroan kokatzeko. *Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa* Donostiako Tabakalera eraikinean kokatzeko akordioa sinatu da. *Euskadiko Liburutegien Legea* onartu da.

Osakidetzan beste hitzarmen kolektibo bat izenpetu da, eta Donostian osasun arloko ikerketako lehen institutua eraikitzen hasi dira; *Biodonostia* izango du izena.

Osasunaren arloan, *Emakumeak eta osasuna Programa* sustatu eta jarri da martxan.

Lan arloko osasun eta segurtasunerako II. Plana onartu da. *Gizarte alokairuko etxebizitzak* sustatzeko talka-plana, udalekin elkarlanean. *Gizonduz* deituriko programa berria, gizonak berdintasunean benetan inplika daitezela lortzeko. *Familia Bitartekaritzako Legea* onartu da. *Familiari Laguntzeko* lege-proiektua ere bai. *Haurren defendatzailea* izendatu da. *Udalen lege-egitasmoa* onartu da. *Gizarte-zerbitzuen lege-proiektua* ere bai. *Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarte-bazterkeriaren arloko lege-egitasmoa* onartu da; horren bidez garai bateko Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarreraren araudia eta Gizarte Eskubideen Gutuna hobetu dira. Pentsiorik apalenak Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren % 100arekin parekatu dira. *Etxebizitza*

eskuratzeko gizarte-laguntza eskubide subjektibo bihurtu da, eta gizarte-larrialdiko laguntzen osagarria izango da. Oinarrizko errenta Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren % 88ra arte handitu da. Terrorismoaren biktimei elkartasuna erakusteko Legea onartu da. Lankidetzaren Euskal Agentzia sortzea onartu da, eta abar eta abar.

Horiek guztiek erakusten digute, tentsioa izan duen ikasturte politiko batean, zer-nolako jarduerak eraman diren aurrera. Badakit horietako batzuen berri komunikabideek eman ere ez dutela egin, nahiz eta horien ondorioak herri honetako biztanleek eskertu dituzten. Tamalgarria da, baina hedabideetako lehen orrialdeetan askotan haserre-giroa da nagusi, benetako kudeaketari jaramonik egin gabe.

Hori hala izanik ere, aipatu ditudan ekimen horiek nik hasieran esandakoa berresten dute: krisiak lanean “harrapatu” gaitu.

Beharbada hori da Euskadiren ezaugarri bereizgarria.

Diru-jaleen eta kontsumismoaren kultura sustatu ordez, Euskadin lehiakortasunean, ekoizpenean, berrikuntzan, hezkuntzak eta gizartearen orekan oinarritutako eredu ekonomiko baten alde egin dugu.

Hori dela eta, erabakitzeke eskubidea aldarrikatzen dugunean, eta erabateko autogobernua eskatzen, hori ez da Madrilekin eztabaidan aritzeko, euskal herritarren arazoak hobeto konpontzeko baizik. Hobeto bizitzeko da.

II.- 2.- Giza garapenaren indizean Euskadi mundu osoko lehen mailetan kokatu da. Hori guztia legealdi osoan zehar guztion artean egindako lanaren ondorioa izan da.

Aurrez aurre dugun garai ekonomikoa kezkatzeko modukoa da. Mundu mailako krisi ekonomikoa, eta baita atzeraldi ekonomikoa ere, ate joka dugu Europan, eta eragin berezia izango du espainiar estatuan. Eta krisia bertan gozo egiteko etorri da, eta ez da aldeneko gutxienez 2009.era arte; ez dut ukatuko. Baina errealitatea hori dela aitortu arren, ez dugu ahaztu behar Euskadik erlatiboki abiapuntu hobea duela krisiari aurre egiteko.

Legealdiaren hasieran helburu bat jarri genuen: Euskadi Giza Garapenaren Indizean munduko lehen hamar herrialdeen artean kokatzea.

Bada, aurtan bertan, bai Eustatek, baita Nazio Batuek Garapenerako duten Programaren bulegoak ere –PNUD deiturikoak–, nazioartean erabiltzen den metodologia erabilita, eta errentaren maila, hezkuntza eta bizi-itxaropena erkatuta, atera duten ondorioa da Euskadi mundu mailan hirugarren lekuan dugula Giza Garapenaren Indizeari dagokionez, Islandia eta Norvegiaren atzetik, eta Australiaren aurretik.

Kasualitatearen ondorioa al da egoera hori?

Ez, ezta gutxiagorik ere. Herri gisa guztion artean egindako ahaleginaren ondorioa da. Eusko Jauriaritza eraldaketa ekarri duen mugimendu horren katalizatzailea izan da. Gu engranaje osoko beste pieza bat gara, baina oinarritzko pieza, eta bere ekarpena oso garrantzitsua izan da euskal gizarteak Giza Garapen Iraunkorraren estrategian aurrera egiteko aukera izateko.

Politika Orokorrari buruzko azkeneko eztabaida da gaurkoa, eta hori dela eta, une egokia dugu legealdian zehar garatu “ditugun” politiken balantzea egin eta etorkizunari bermeekin aurre egiteko moduan zergatik gauden ikusteko. Esan dezadan “ditugun” diodala, baina hor ez gara Gobernuoak bakarrik sartzen; “gu guztiok”, gizarte osoa biltzen du “ditugun” horrek.

II.- 3.- Enpresen lehiakortasuna hobetzearen aldeko apustua egin dugu, eta gaur egun industria-sare osasuntsua eta ondo prestatutakoa dugu, oraingo egoera ekonomiko txarrari aurre egiteko modua izateko.

Gauzak ez dira berez eta besterik gabe gertatzen; iraganean hartutako erabakien ondorioa izaten dira. Eusko Jaurlaritzak erabakiak hartu izan ditu, eta Herri honen gidaritza instituzionala izan du, lehiakortasuna hobetzeko.

Legealdiaren hasieran, 2006-2010eko *Lehiakortasun eta Gizarte Berrikuntza Plana* onartu genuen, eta horren bidez, euskal ekonomiaren lehiakortasun orokorra hobetzeko jarraitu beharreko estrategia definitzeko modua izan dugu.

Plan hori garatu eta betearazteko urratsen bidez, *Lehiakortasunaren Euskal Institutua* sortu da, Michael Porter buru duela, eta kontuan izan behar da arlo horretako munduko aditu nagusienetako bat dugula bera. ETEei laguntzeko programak sustatu dira, *Innovanet Sarearen* bidez, *Gauzatu Programaren* bidez eta *Sustatzaile Berriei Laguntzeko Programa* oinarri hartuta.

Lehia Defendatzeko Euskal Institutua abiarazi da, eta inbertsio estrategikoak egitea ere sustatu da, *Ekarpen* izeneko funtsaren bidez; funts hori berriki eratu dute Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta euskal finantza-erakundeek.

Ahalegin horri esker, euskal ekonomiaren hazkunde-tasa espainiar ekonomiarena baino handiagoa izan da, baita Europako batez bestekoarena baino handiagoa ere, eta hori legealdi osoan zehar. Joera aldekoago hori mantendu egin da 2008. urteko lehen bi hiruhilekoetan; izan ere, gure Barne Produktu Gordinaren hazkundera, lehen hiruhilekoan, % 1,1koa izan zen, eta % 0,3koa bigarren hiruhilekoan. Espainiar ekonomiarena, ordea, % 0,3koa eta % 0,1koa izan zen denbora-tarte berean.

Urte arteko tasaren hazkundera ikusten badugu, Euskadiren hazkundera % 2,6koa ari da izaten, espainiar hazkunderatik ia puntu bat gorago (% 1,8koa baita), eta Europako batez bestekotik puntu bat gorago (% 1,6koa baita Europan).

Gure per capita errenta Europako batez bestekoaren % 141koa da, eta Luxenburgo eta Irlandak baino ez dute gainditzen.

2007. urtearen amaieran, Eustaten baitako Jarduera Ekonomikoen Direktorioaren arabera, 180.475 enpresa genituen, hau da, 2004. urtean baino ia 22.000 enpresa gehiago. Gure ekoizpen-indizea Europako batez bestekotik % 31 gorago dago, eta dugun merkataritza-balantza positiboa da; espainiar estatuan, ordea, defizita endemikoa da.

Adierazle horiei eta beste batzuei esker, Euskal Autonomia Erkidegoa lehen lekuetan dago Estatuko lehiakortasunaren ranking-ean, BBVA Fundazioak egin eta 2008ko martxoan argitaratu zen azterlan independente batek erakusten duenez.

II.- 4.- Euskadiren bigarren eraldaketa ekonomikoari egin diogu aurre, eta berrikuntza bultzatu garapenaren motor berria izan dadin.

Euskadiren bigarren eraldaketa ekonomikoari aurre egingo geniola esan genuen, eta hala egin dugu. Legealdi honetan, berrikuntzan oinarritutako garapen-eredu berri bati ekiteko oinarriak jarri ditugu. Herri gisa helburu bat jarri diogu gure buruari: Berrikuntzaren erreferentia izatea Europan. Eta lortuko dugu.

Batetik *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Plana* onartu izanak, 7.000 milioi euro dituelarik, eta gainera, “euskal hiru-hortza” deitu izan duguna abiarazi izanak –hau da, *Zientzia eta Teknologiaren Euskal Kontseilua, Berrikuntzarako Euskal Agentzia (Innobasque)* eta *Ikerbasque Fundazioa*, nazioartean punta-puntakoak diren ikertzaileak gureganatzeko– eragin dute XXI. mendeko industria-iraultza eraikitzeke oinarriak jarrita izatea.

Oinarri horiek izanda, ikerketa kooperatiboko zentro berriak sustatu ditugu, hala nola *CIC Biogune* eta *Biomagune* deiturikoak, hain zuzen ere biozientziaren eta biomaterialen arloan jarduteko. Horrekin batera, *Nanogune* ikerketa-zentro berria dugu, nanoteknologien arloan jarduteko. *Mikrogune*, mikroteknologien eremuan aritzeko. *Margune*, fabrikazioko prozesuen arloetarako, eta *Energigune*, ordezko energien arloa ikertzen arituko dena.

Oinarritzko ikerketaren arlorako bikaintasun-zentroak sustatu ditugu. Teknologia-parkeak handitu egin dira. Eta errealitate bihurtu da Arrasaten kokatutako *Garaia Berrikuntza Poloa*.

Herritarrak informazioaren mundu berrian barneratzeko erraztasunak jarri ditugu, horretarako plan bereziak bultzatuta: Euskadi Informazioaren Gizartean Plana, Administrazio eta Gobernu Elektronikoaren Plan Estrategikoa edo Justizia Administrazioarako Informatika Plana.

Ekimen eta proiektu horiek guztiek amets izateari utzi diote. Ukitzeko moduko errealitateak dira gaur egun. Sektore berriak, produktu berriak, enpresa berriak borborka ari direla erakusten digute horiek guztiek. Azken batean, gaur aurreratu dugunaren isla dira, eta Euskadi etorkizunean izango denaren ernamuina.

Ilusioa eragiteko moduko erronka dugu, eta badakigu oinarri sendoen gainean ari garela eraikitzen. Europan liderrak gara milioi biztanleko dugun kalitate-egiaztagirien kopuruaren arabera. Zientzia eta Teknologien arloko graduatuei dagokienez, Europako lehen lekuan gaude.

Euskadin egunero 2,5 milioi euro inbertitzen dira ikerketan. 8.150 ikertzaile profesional ditugu, eta 1.200 euskal enpresak I+G-ko departamentuak dituzte.

Eusko Jaurlaritzak ikerketa teknologikorako duen aurrekontua % 176 hazi da legealdi honetan, eta gure I + G-ko ratioak Barne Produktu Gordinaren % 1,5era hurbiltzen ari dira, hau da, Europako batez bestekotik urruti oraindik, baina legealdi honetan egin beharreko bidea egin dugu, laster konbergentzia teknologikora iristeko.

II.- 5.- Komunikaziorako azpiegitura fisikoak hobetu ditugu, eta Euskadi barruan mugitzeko aukerak erraztu ere bai; horrekin batera, Europa eta Iberiar Penintsula lotzeko Euskadiren lotura-gaitasuna areagotu dugu.

Azpiegituren plan integratu handi bat gauzatzen ari gara, eta logistikako gune berriak garatzen ere bai, bi helburu gogoan izanda: herrialdearen barruko mugikortasuna erraztea eta Europako komunikazio-ardatzekiko dugun lotura indartzea.

Plan horretan eragile garrantzitsuenetakoa, Europako Batasunak egindako gomendioekin bat, trenbideen sarea indartzea da. Eta hori hala izanik, legealdi hau historiaren bidez oroitzean, gogoan izango dute Espainiako Gobernuarekin akordioa lortu dugulako, abiadura handiko trenbidea, *euskal y-a*, eraikitzeko.

Une honetan obrak egiteko 14 zati daude esleituta, eta horietako hamarretan lanean ari dira dagoeneko. Gure aurreikuspenen arabera, legealdia amaitu baino lehenago, *euskal y*-aren erdian baino gehiagoan lanean ariko dira.

Lan horien osagarri, Euskotren-en trenbideak ere hobetu egin dira, bereziki Durango eta Donostia inguruan. Bestetik, Bilboko metroaren lanekin ere aurrera egin da. Urtea amaitu baino lehen, *Gasteizko tranbia* amaituta egongo da. Arabako *Arasun* izeneko plataforma logistiko berria handitu egin da. *Itsasoko lehen autobidea* lanean hasi da, *Bilbo eta Brujas-en artean*, eta Pasaia kanpoaldeko portuaren lanei ere ekin zaie.

Azpiegituren sare hori guztia osatzeko, bi errepide estrategiko aipatu behar dira: *Maltzaga/Urbina autobidea*, amaitzeaz dagoena, eta *Bizkaiko supersur* deiturikoa egiteko lanak; azken horren bidez, Iberiar Penintsulako mendebaldearekiko lotura egin eta Europako Batasunaren ipar-hego arteko ardatza bideratuko da.

II.- 6.- Ingurumena eta gure naturguneak babestea eta berreskuratzea sustatu dugu.

Euskadi da 2020. urtera arteko *Garapen Iraunkorrerako Estrategia* onartua duen Europako erkidego bakarra.

Estrategia hori bete nahian, legealdi honetan Ingurumenaren arloko II. Esparru Programa onartu dugu, 44 konpromiso zehatz eta neurgarriak dituela.

Europako Batasunaren gomendioei jaramon eginda, gutxiago kutsatzen duten energiak erabiltzea bultzatu da (esate baterako *gas naturala*), eta *energia berriztagarriak* erabiltzea areagotzeko programa bat ere abiarazi da.

Iraunkortasunaren aldeko udalerrien euskal sarea, Udalsarea 21 deitzen dena, indartu da.

Bidegileak izan gara *Klima Aldaketaren aurka Borroka Egiteko Plana* onartuta, horretarako 600 milioi euro jarririk, eta klima-aldaketari buruzko Bikaintasunezko Ikerketa-zentroa eratu dugu.

Uraren Euskal Legea onartu eta *Uraren Euskal Agentzia* eratu da.

Martxan jarri dira ondorengo planak: *Kutsatutako Lurrak Berreskuratzeke Plana*, *Hiri Hondakin Solidoak Kudeatzeko Plana*, *Ingurumen aldetik Iraunkorra den Kontsumo-plana* eta *Itsasertza Babesteko Lurralde-plana*.

Era berean, airearen kalitatea kontrolatzeko guneen sarea eratu da, eta Armañon, Aizkorri/Aratz eta Entziako parkeak ere sortu dira. Horiakin batera, ezin ahaztu lehenagotik dauden biotipo, natur erreserba eta babestutako guneak.

Oraindik ere asko dago egiteko, eta ingurumenaren iraunkortasuna landu beharreko gaia izango da hainbat eta hainbat legealditan, baina dagoeneko ari gara egindako ahaleginaren lehen fruituak ikusten.

Europako bigarren lekuan dago Euskadi, Suediaren ondoren, ingurumen-kudeaketako enpresa-egiaztagiria lortzeari dagokionez. Energiaren eraginkortasunean dugun indizea, hau da, kontsumitzen dugun energia-kopurua sortzen dugun Barne Produktu Gordinarekin alderatuta, Europako bost onenen artean dago. Euskadiko lurraldearen % 23 babestutako gune izendaturik dago. Gas Naturala da energia-iturri nagusia, petrolioari aurre hartuta, eta kontsumitutako uraren % 85 araztegietatik pasatzen da gero; 2003. urtean, kopuru hori % 64koa baino ez zen.

Lehen sektorearen garapenari dagokionez, kontuan izanda ezinbesteko osagaia dela gure ingurumenaren iraunkortasunari eusteko, ondorengoak onartu dira: *Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoari* buruzko Legea, Landa-garapen Iraunkorrerako Plana, Arrantza-sektorearen Plan Estrategikoa (430 milioi euro izango dituen), eta Elikagaien Industria eta Kalitateari buruzko Plana.

Nekazaritza eta elikagaien arloan ikertzeko, hainbat proiektu sustatu dira, inguruko beste erkidego batzuekin elkarlanean, nekazaritza eta elikadurako sektore nagusien etorkizuna bermatzeko; esate baterako, Errioxako ardoaren arloan ikertuko da.

Era berean, gazteak lehen sektorean aritzeko programak ere abiarazi dira, baita nekazaritzako produktuak merkaturatzea sustatzeko plan berriak ere.

Bukatzeko, pasa zen asteartean, irailaren 16an, Gobernuak Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaien Politikari buruzko Lege-egitasmoa onartu zuen, eta bertan, euskal sektore horiek gero eta globalagoa den testuinguru batera egokitzeko tresnak zehaztu dira, eta nekazaritza-eremu bizi eta iraunkorra garatu ahal izatea bermatzeko tresnak ere bai.

II.- 7.- Enplegua sortzearen alde egin dugu, hori baita gizarteratzeko bide nagusia.

Horretarako, *Erakunde Arteko Enplegu-plana 2010* onartu genuen. Errelebo-kontratuaren alde egin dugu, laneko eta familiako bizitza uztartu ahal izatearen alde egin dugu, eta aldi baterako lanak gero eta gutxiago izaten saiatu gara. Laneko Segurtasun eta Osasunaren II. Plana abiarazi dugu, 40 milioi euro jarrita, laneko istripu eta ezbeharrei aurre egiteko. Esandakoaz gainera, Euskal Enplegu Zerbitzuak –Lanbidek– sei bulego ireki ditu, eta joan zen urtea bakarrik hartuta, 21.000 lan-kontratu kudeatu zituzten.

Badakigu krisi ekonomikoaren ondorio negatiboak dagoeneko hasi direla enpleguan eragiten. Baina gezurrezko baikortasun gabe, egia da langabezia-tasak gure historiako apalena izaten jarraitzen duela, eta euskal ekonomiak 2008. urtean ere enplegua sortzen jarraituko du.

INEk argitaratutako azkeneko datuen arabera, Euskadin abuztuan zegoen langabe kopurua 81.910ekoa zen, hau da, aurtengo urtarrilean zegoenaren oso antzekoa –81.393–. Espainiar estatuan, ordea, abuztuko langabe-kopurua 2.530.000 pertsonakoa zen, urtarrilean baino 267.000 langabe gehiago –2.262.000–.

Biztanleria aktiboaren inkestara berriro jo eta ikusiko dugu espainiar estatuan bigarren hiruhilekoan langabezia-tasak % 10,4raino egin duela gora, azken urteetako mailarik altuena. Euskadin, ordea, estatistika-erakunde beraren datuek erakusten dutenez, langabezia-tasa ia erdia da, % 5,5ekoa –Eustaten arabera % 3,5ekoa–; edonola ere, gure historiako langabezia-tasa apalena.

Batzuek nahiago dute emaitza horiei garrantzia kentzea, eta esaten dutenez langabezia apal hori ez da enplegu gehiago sortu izanaren ondorioa, biztanleria aktiboak behera egitearen ondorioa baizik. Gezurra, erabat.

Biztanleria Aktiboaren Inkestaren azken emaitzetan agerienez, 2008ko 2. hiruhilekoan, Euskadin, lehen aldiz historia osoan, milioi bat pertsona ari ziren lanean –1.005.000 pertsona– aurreko urteko garai berean baino 11.000 pertsona gehiago.

Era berean, biztanleria aktiboa historiako altuena da, 1.064.000 pertsonakoa baita, aurreko urteko garai berean baino sei mila pertsona gehiago.

Horiek dira datuak.

Kontua ez da datu horiek eztabaida antzuak sortzeko erabiltzea, ez eta horregatik poz-pozik jartzea ere. Baina datuak horiek dira, eta hori esanda, lan-merkatua eta enplegua Gobernuaren ardua nagusietako batzuk direnez, lanean jarraituko dugu enplegua sortzen jarraitzeko eta lanik ez dutenei babes eskaintzeko sarea mantentzeko

II.- 8.- Kaltetuenak direnentzako babes soziala eta horiekiko elkartasuna areagotu ditugu.

Pasa den uztailan, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Lege-egitasmoa onartu genuen, eta horren bidez, gizarteratzearen eta babes sozialaren arloko lege-esparrua berrikusi da, agindutako moduan. Egitasmoak eskubide subjektibo gisa arautzen du gizarteratzeko oinarritzko errenta, eta horri esker, Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren % 88 jasoko da.

Gainera, pentsiorik apalenak Gutxieneko Soldataren % 100arekin parekatu dira, eta etxebizitzarentzako laguntza berezitu bat ere onartu da, gaur egun indarrean diren gizarte-larrialdiko laguntzen osagarri.

Gizarte Zerbitzuen Lege-egitasmo berria onartu eta Legebiltzarrera bidalita dago, eta horretan herritar guztiek gizarte-zerbitzuen sistema integratuan sartzeko duten eskubidea jasotzen da; horrela, Euskadiko ongizatearen hirugarren oinarria sendotu da, hezkuntza eta osasun arloekin batera.

Ekimen horien osagarri, *Gizarteratzeko Erakunde arteko Bigarren Plana 2007-2009* betetzen ari gara, 800 milioi euro baino gehiagoko kopurua duela, kaltetuenak diren pertsonak lan-merkatuan sartzeko aukera izan dezaten.

Legealdi honetan, bultzada indartsua eman diogu Euskadiko babes sozialeko sistemari, eta horri esker, estatuan abangoardian gaude elkartasunaren arloan.

Bost datu baino ez ditut emango:

- Euskadin txirotasunaren arrisku-tasa, hau da, ehuneko zenbat pertsonak duen estatuko batez besteko errenta baino errenta apalagoa, % 9,8koa da, Europako Batasuneko tasarik apalena, eta espainiar estatuko tasa baino askoz beherago dago, estatuan % 20koa baita.
- Euskadin pertsona bakoitzeko babes sozialerako gastua Espainiako batez bestekotik % 22 gorago dago.
- Baliabiderik ez duten pertsonentzako oinarritzko errenta bat legez bermatzen duen erkidego bakarra gara estatu osoan, eta errenta hori gutxieneko soldataren % 88koa da gutxienez.

- Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuan oinarritzeko errenta finantzatzeko 2008an 200 milioi euro erabiliko dira, hau da, bikoiztu egin dugu 2004. urtean erabili zen kopurua, alegia, aurreko legealdiko azkeneko urtean erabili zena, orduan 114 milioi erabili baitziren.
- Euskadik 1.500 milioi erabiltzen ditu gizarte-zerbitzuetako gastuei aurre egiteko, eta horietatik % 71 –1.000 milioi euro baino gehiago–, euskal erakundeek jarritako finantziazio publikotik lortzen dira.

II.- 9.- Munduko bizi-itxaropen altuenetakoa daukagu, besteak beste, gure osasun-sistema publikoa bikaina delako, eta etengabe hobetzen dugulako.

Osasun-sistema publikoa sendotzeko eta hobetzeko ari gara lanean, horixe da gure apustua. Horretarako, neurri jakin batzuk jarri ditugu abian, lau ekintza-lerrotan bilduta:

- *Osasun-arloko azpiegiturak eta ekipamenduak hobetu ditugu.* Osasun-arloko Inbertsioen Plan Estrategikoaren bidez, 650 milioi euro izango ditugu beste 100.000 metro koadro osasun-gune jartzeko, ospitaletan beste 300 ohe egokitzeko, beste 30 osasun-zentro eraikitzeke, Txagorritxu, Donostia, Basurto eta Gurutzetako ospitaleak berritu, modernizatu eta handitzeko, eta Deba Garaian, Gernikan, Urdulizen eta Enkarterrietan berehalako erantzuneko ospitale berriak eraikitzeke.
- *Langileen profesionaltasuna areagotu eta giza baliabideak finkatu dugu,* horretarako, Osakidetza langileen %95 finkatzeko bidea emango duen lanpostu-eskaintza publikoa eginda. Gainera, hitzarmena sinatu dugu gehiengo sindikalarekin, eta, horri esker, lanbide-kategoria guzti-guztien lan-baldintzak nabarmen hobetuko dira, eta beste 1.000 plaza berri sortuko dira osasun-arloko kalitatea hobetzeko; batez ere, lehen mailako osasun-arretan.
- *Herritarrentzako osasun-zerbitzuak hobetu ditugu.* Osasun-arloko zerbitzu eta prestazio berriak jarri ditugu martxan, esate baterako, osasun-txartel elektronikoa eta errezeta elektronikoa; bigarren iritzi medikoa izateko eskubidea arautzeko dekretua ere martxan da, bai eta kirurgia onkologikoko itxaron-zerrenda gehienez ere 30 eguneko izango dela bermatzeko dekretua ere; eta etxeko ospitalizazioa erkidego osora zabaldu dugu. Zaintza aringarriaren plana onetsi da, bai eta bularreko minbiziari garaiz antzemateko plana 70 urte arte zabaltzea, umetokiko minbiziaren kontrako txertoa eman beharreko txertoen zerrendan sartu dugu, koito ondorengo pilula doan izatea lortu dugu, eta haurdun dauden emakume guztiei Down sindromearen antzemate prebentiboa egitea.
- Gure ekimenen laugarren lerroa, hain justu, *baliabideen kudeaketan efizientzia bultzatzea eta ikerketa sanitarioa hobetzea* izan da. Botika generikoen alde egin dugu, farmazetikoen elkargoarekin sinatutako hitzarmen baten bidez. Hitzarmen horri esker, ia % 20 igo da botika generikoen kontsumoa eta, bide batez, farmaziako gastuaren gorakadari ere aurre egin diogu. Horrez gain, ikerketa sanitarioari ere bultzada eman diogu: 417 ikerketa-proiektu abiarazi ditugu. Are gehiago, Osasun Ikerketarako Euskal Institutua –Biodonostia–, halako lehenengoa, eraikitzeari ekin diogu aurtengo uztailan. Europa guztian erreferente izango da

bihotz-hodietako gaixotasunetan, nerbio-sistemaren gaixotasunetan eta digestio-sistemaren gaixotasunetan.

Eta, halere, biztanleko osasun-gastuan eginiko inbertsioa da Jaurlaritzak Euskadiko herritarren osasuna hobetzeko hartua duen konpromisoaren adierazgarri onena.

Legealdi honetan, gastu publiko sanitarioa handitu egin dugu: 2005. urtean biztanle bakoitzeko 1.160 euroko gastua zena, 1.506 eurora igo dugu; hau da, hiru urtean % 30 handitu dugu biztanle bakoitzeko osasun-gastua, eta Estatuko batez bestekoa baino % 20 handiagoa da orain.

Egindako ahaleginaren ondorioz, euskaldunon bizi-itxaropena ia hiru urtez luzatu da azkeneko hamarkadan, osasunari buruzko azkeneko inkestak, 2007an egindakoak, adierazi duenez.

Gizonezkoen kasuan, bizi-itxaropena 78,3 urtekoa da, batez beste, eta emakumezkoen kasuan, 85,6 urtekoa, batez beste. Bi kasuetan, munduko bigarren altuenak dira indizeok: Japonia bakarrik daukagu aurretik.

Bizimodu osasungarriagoa hedatzeari esker eta Euskadiko osasun-sistemaren kalitatea eta prestazioak hobetzeari esker lortu dugu hori.

II.- 10.-Familiari laguntza emateko politika integrala sortu dugu, eta gizon eta emakumeen arteko berdintasun-politiketan punta-puntakoak gara.

Joan den apirilaren 1ean, *Familiei Laguntzeko Legearen Proiektua* aurkeztu zuen Jaurlaritzak Legebiltzarrean: Familiari Laguntzeko II. Planaren bitartez landu ahal izan den familiei laguntzeko politika integralaren azken urratsa.

Legealdi honetan, familiak babesteko Jaurlaritzak ematen duen laguntza % 83 handitu dugu: 199 milioi izan ziren 2004an, eta 365 milioi izan dira 2008an.

Pizgarri ekonomikoak eta zerga-desgrabazioak ezarri ditugu *umeak izan edo adoptatzeagatik. Lana eta familia uztartzeko* Programa ere hortxe daukagu, enpresei nahiz pertsoneri pizgarriak ematen dizkiena, hartara, seme-alabak edo senide dependenteak zaintzeko eszedentziak errazago eman ditzaten. *0 - 3 urte bitarteko haurtzaindegietan* 3.700 plaza berri sortu dira. Pasa den otsailean, *Familia Bitartekaritzako Legea* onetsi zen, eta *Haur eta Nerabeen Defendatzailea* izendatu; ekimen horiei esker, familiei babesa emateko euskal erakundeek garatutako politika integrala sendotu dugu.

Gainera, Estatuak ematen dizkien laguntzez gain jasoko dituzte euskal familiek laguntza hauek. Esate baterako, seme-alabak izateagatik edo adoptatzeagatik jasotzeko laguntzei dagokienez, Euskadiko familiek, Estatuko familiek jasotzen dituzten laguntza orokorrez gain, beste 900 euro ere jaso ditzakete –euskal erakundeen eskutik– lehenengo umearen kasuan. Bigarren umea bada, beste 1.500 euro jasoko dituzte, umearen aurreneko bi urteetan banatuta, eta beste 6.300 euro hirugarrengo eta ondorengo seme-alabengatik, aurreneko zazpi urteetan banatuta. Eta hori guztia, gainera, zerga-desgrabazioetatik aparte.

Hala, familientzako laguntzetan Euskadi da nagusi Estatu guztian. Orain, halako neurriak ugaritzen jarraitzea da gure helburua, hurrengo urteetan Europar Batasuneko lehenengoetakoak izan nahi dugu-eta.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasun-politikari dagokionez ere, aurrera goaz, bide onetik gabiltza, baina bene-benetako berdintasuna lortzetik oso urrun gaude oraindik.

Legealdi honetan, *IV. Berdintasun Plana* gauzatu dugu, eta berdintasunaren aldeko udalerrien euskal sarea osatu dugu. *Berdintasunerako Defentsa Erakundea* abian jarri dugu. *Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako* programa berezia prestatu dugu; horren barruan, harreraretxeak egokitu ditugu eta babes-programak eta prebentzio-ekintzak bultzatu ditugu, telefono bidezko zerbitzu berezi baten bitartez. *Gizonduz* programa berria ere sortu dugu, halaber, aurten; izan ere, lan handia egin behar dugu oraindik gizona kook jabetu gaitezen guk geuk egin behar dugula lan, ez besteek bakarrik, berdintasuna lortuko badugu.

Aurrera egin dugu. Euskadiko Berdintasun Legea punta-puntakoa da bai Estatuan eta bai Europan. Legebiltzarreko aulkien % 53 emakumeek betetzen dituzte; aldiz, Espainiako Kongresuan, % 35 dira emakumeak eta Europako Parlamentuan, % 28. Aurten, emakumeen langabezi tasa inoizko baxuena izan da. Nolanahi, aurrera egin dugun arren, bide luzea dugu oraindik aurretik. Eta bide horretan, Gobernu garen aldetik, gure lehendabiziko helburua da, inondik ere, emakumeek pairatzen duten indarkeria matxista bertan akabatzea. Tolerantzia zero emakumeen kontrako erasoei; gizarte zibilizatuan ezin dugu halakorik onartu. Bene-benetan diotsuet gure esku dagoen guztia egin eta jarriko dugula ahalegin horretan: besteak beste, emakumeen kontrako indarkeriaren aurka egiteko indarrean dagoen erakunde arteko Akordioa eguneratu eta hobetu egingo dugu.

II.- 11.-Etxebizitza publikoak eraikitzeari ekin diogu, Euskadiko herritarron arazorik larrienetako bati aurre egiteko.

Estatuko *Lurzoru Lege* aurrerakoiena onetsiz ekin genion legealdiari, eta horri esker, babes ofizialeko etxebizitzak egiteko lur-erreserba handitzeko moduan izan gara; gainera, hirigintza kudeatzeko bestelako tresna berriak ere eman dizkigu. Eta, are gehiago, iragan ekainean, Lege hori aldatzeko proiektua onetsi zuen Jaurlaritzak, eta % 15 arte igo zuen promotoreek udalei egin beharreko hirigintza-lagapena.

Lurzoru Legearen babesean, *IV. Etxebizitza Plana* onartu da, 2009 urte bitartean babes sozialeko 27.000 etxebizitza eraikitzen laguntzeko. Urte hau amaitzean, legealdi honetan, hau da, 2005-2008 urteen artean, eraikitako babes ofizialeko etxebizitzak 23.000 izango dira. Horrenbestez, gure buruari 2009rako ezarritako helburuak beteko ditugulakoan gaude. Erreferentzia izateko, hona datu bat: babestutako beste 7.310 etxebizitza eraikitzen hasi ginen 2007. urtean bertan, hau da, Euskadin eraikitako etxebizitza guztien % 40. Estatuan eraikitako etxe babestuen halako lau eraiki ditugula adierazten du horrek; alegia, babestutako etxebizitzetan ere, Estatuko aurrenak garela.

Gainera, eta, horren osagarri, iruzurraren kontrako programa berezia jarri dugu martxan; eta babes ofizialeko 31.000 etxebizitza ikuskatu ditugu dagoeneko, hau da, parke publikoaren erdia.

Halaber, 6.000 etxebizitza huts alokairurako jarri ditugu, Bizigune Programaren bitartez.

Alokairuko etxebizitza sozialak are gehiago bultzatu nahi ditugu, bereziki, udaletxeek sustatutakoak. Helburu hori gogoan hartuta, beraz, *Alokairuko Etxebizitza Sozialen Talka Plana* jarri dugu abian, hala nahi duten udaletxeei 40.000 euro emateko sustatzen duten pisu bakoitzeko, subentzionatutako kredituez gain. Plan honek 130 milioi euro izango ditu hurrengo hiru urteetarako, eta babestutako alokairuko 1.700 etxebizitza merkaturatzeko aukera emango digu urtero.

Etxebizitza sozialak eraikitzeke ekimenak eta alokairua bultzatzeko ekimenak ez ezik, bestelako ahaleginak ere egin ditugu: etxeak eraberritzen jardun dugu, eta gainbehera etorritako gunek oneratu eta irisgarriago egin ditugu. Labur esateko, 70.000 familiei lagundu diegu legealdi honetan.

Begien bistan dago Jaurlaritzak etxebizitza-arloan egin duen ahalegina. 2004 eta 2008 urteen artean, aurrekontua % 74 handitu dugu: 238 milioi geneuzkan 2004. urtean, eta 416 milioi ditugu ekitaldi honetan.

Gure helburua da legealdi honetan bertan osatu eta bukatzea etxebizitza-politika, horretarako, Jaurlaritzan bertan ez ezik, tarteko agenteekin eta indar politikoekin buru belarri lantzen ari garen Etxebizitza Legearen proiektua onetsi egin nahi dugu. Ahalik eta adostasun handiena lortu nahi genuke, euskaldun guztiok aterpe duina izateko daukagun eskubidea finkatuko baitu Lege horrek.

II.- 12.-Hezkuntza-sistemako inbertsioa handitu dugu eta berritzeari ere ekin diogu, Estatuan nahiz Europan aski ezagunak diren kalitate-parametroak are gehiago hobetzeko.

Bofill Fundazioak duela gutxi argitaratu dituen zenbait txosten independentek, bai eta Hezkuntza Ministerioak berak egindako ikerketek ere, argi eta garbi utzi dute berriro Euskadi dela, Estatu osoan, hezkuntzako bikaintasunaren rankingeko lehena.

Eta logikoa ere bada, Estatu osoan irakaskuntzan guk egiten baitugu inbertsio handiena ikasle bakoitzeko. Unibertsitateaz kanpo, ikastetxe publikoetan, 8.800 euro inbertitzen ditugu urteko eta ikasle bakoitzeko; askoz gehiago Espainian batez beste inbertitzen dena baino: 5.300 euro. Halaber, EHUK berak ere 10.000 euro baino gehiago inbertitzen ditu ikasturte bakoitzean ikasle bakoitzeko. Ez da Estatu osoan beste unibertsitaterik halako finantzazio publikoa duenik.

Bikaintasunaren parametro horiek hobetu nahian, hezkuntza-sistema eguneratzea eta egokitzea, horixe izango da gure hurrengo erronka.

Hain justu, *Unibertsitate Plana* onetsi dugu, 1.270 milioi euro izango dituen euskal unibertsitatea Europako esparruan egoki txertatzeko. Gainera, *hezkuntza curriculum berria* ere onartu dugu, etengabe aldatzen den mundu honetako hezkuntza-premia berrietara egokitzeko tresnarik falta ez dezaten gure ikasleek.

Sektoreko lan-hitzarmena sinatu dugu eta, horri esker, besteak beste, 3.000 lanpostu enplegu eskaintza publikoan aterako ditugu, langileen % 90 finko egiteko.

Irailean bertan, *Hezkuntzako Azpiegituretarako Inbertsioen Plan Estrategikoa* onartu du Jaurlaritzak, 700 milioi eurokoa, sare publikoko 300 zentro baino gehiagori laguntzeko.

Ez hori bakarrik, *Lanbide Hezkuntzako III Euskal Plana* ere bukatzeaz daukagu: urtea amaitu aurretik onetsiko da, eta ikasketak eta lan-praktikak bateratzeko moduko prestakuntza mistoaren aldeko apustua izango da.

Gure historiako gaztedia prestatuena da geurea. Euskadiko gazteen % 80k erdi-mailako edo goi-mailako hezkuntza dauka, eta Euskadiko hezkuntza-sistemaren eskola-porrota Europako baxuenetakoa da.

Aurrera egin dugun arren, badugu zer lortu oraindik, eta ilusioz ari gara lanean. Bestalde, Eusko Legebiltzarraren ebazpenak agindutakoa betetz, legealdi guztia daramagu Hizkuntzak ikasteko araudia lantzen, ezinbesteko tresna baita hezkuntza-sistamarako, eta, horrenbestez, ahalik eta adostasun gehiena bil dezala nahi genuke. Hala, Jaurlaritzak, Hezkuntza Sailaren bidez, argi utzi du prest dagoela eta pozik ekingo liokeela talde parlamentarioekin eta alderdi politikoekin negoziazio irekiari, adostasun hori ideia hutsala ez, baizik errealitate izan dadin. Hala nahi nuke nik.

II.- 13.-Gizartearekin konprometitutako herria gara, kulturalki aurreratua eta kanpora begira irekia.

Kulturaren Euskal Plana 2015. urtera arte Euskadiko kultur politika gidatzeko diseinatu zen, eta bultzada ederra jasa du legealdi honetan.

Euskal Planaren ekimenen artean, baten bat aipatzekotan, hona hemen nabarmenenak: *Etxepare Institutua Sortzeko Legearen* onespena, euskal hizkuntza eta kultura kanpoan zabaltzeko. *Kulturaren Euskal Behatokia. Euskadiko Museoen Legea. Liburutegien Legearen* onarpena. Hitzarmen sinatu berria, *Euskal Liburutegi Nazionala* Koldo Mitxelena zentroan kokatzeko. *Euskal Artxibo Nazionalaren* sorrera. *Euskal Antzokien Sarea* sendotzea. Zinemaren eta audiobisualen euskal industria sendotzea, *Eiker cluster*-aren bitartez. *Arte Eszenikoaren Zentroaren* onarpena, 2009an irekitzeko, Bilboko Alhondiga eraikinean. Arabako erakundeekin ere hitzarmena sinatu dugu, Maturana-Berastegi Jauregia egokitu eta *Zain – Kultur Ondarea Ikertzeko Zentroaren* egoitza bertan jartzeko.

Horrez gain, Kulturako Azpiegituren Plana amaitu dugu. Euskadi-Kirola Fundazioa eratu dugu, nola, goi-mailako kirolari laguntzeko, euskal kirola sustatzeko programak osatuz; hala, Euskadiko kirol-selektzioei bultzada emateko.

EITB-rekin *kontratu-programa* sinatu dugu, 2010. urte arte luzatuko dena, batetik, aro digitalari erabat egokitzeko eta, bestetik, beste bi kate berri sortzeko ETB-3 eta ETB-4. Gainera, *tokiko telebista digitalentzat 57* esleipen eman ditugu.

Halaber, ezin aipatzeke utzi Euskadi, Galizia eta Kataluniak, lehengo aldiz, kultur arloko elkarlan-hitzarmena sinatu dugula.

Gaztediari dagokionez, nabarmentzekoa da oraintxe astebete onartu berria den *Gaztediaren Euskal Legearen proiektua*, gaztediari laguntzeko politika integralean euskal erakunde bakoitzak zein eskumen eta zeregin izango duten zehaztuko duena. Asoziazionismoa eta gazteen partehartzea bultzatuko du, emantzipazioa eta lan-munduan sartzeko laguntzak arautuko ditu, eta babestutako etxebizitzak eskuratzekoan diskriminazio positiboa bultzatuko du, besteak beste.

Euskarari dagokionez, Administrazioan Euskararen Normalizazio Plan berria onetsi da. Pasa den uztailen, are gehiago, zerbitzuetako eta merkataritzako enpresa handietan euskararen erabilera arautzeko Dekretua onartu zen.

Euskararen hainbateko titulu ofizialak finkatu dira, baliozkotze-sistema europarrera egokituz eta bateratuz.

Hizkuntza-politika bultzatu dugu, batez ere, lan-arloan eta informazioaren teknologia berrien inguruan.

Euskara epaitegietara zabaldu dugu, Justizia Administrazioko Euskararen Normalizazio Planaren bitartez.

Gainera, mundu zabalera hedatu dugu euskara, Microsoft enpresarekin sinatutako hitzarmen baten bidez, Windows Vista eta Office 2007 programak euskaraz ere egotea lortu baitugu.

Ahalegin horien ondorioz, pertsona elebidunak % 33 gehiago dira duela 15 urtetik hona. Eustat-aren datuen arabera, 700.000 lagun dira dagoeneko euskaraz badakitenak.

Gizarte modura, gure hurrengo erronka izango da euskara maila guztietan erabiltzeko ahalegina egitea eta gizarteko esparru guztietan euskararen normalizazioa bultzatzea. Horretan jarraituko dugu lanean, beharrezko malgutasuna eta adostasuna lortu nahian beti, baina bene-benetan sinistuta euskarak benetako hizkuntza ofiziala izan behar duela, gaztelania bezainbeste jakin eta erabiltzen dena.

II.- 14.-Solidaritatea eta elkarlana dira gure bereizgarri munduaren aurrean.

Behin baino gehiagotan esana dut Euskal Herriak herri izateari utziko diola solidario izateari utziz gero. Izan ere, solidaritatea eta elkarlana gure izanaren oinarri dira.

Hori dela-eta, beti bezala, garrantzi bereziki handia eman diogu etorkinak integratzeko ahaleginari eta herrialde ahulenei laguntzeko lankidetzaprogramei.

Garapenerako Lankidetzaren Legea onartu dugu; pasa den ekainean, *Elkarlanerako Euskal Agentzia* sortzeari onespena eman zion Legebiltzarrak, eta Garapenerako Lankidetzaren Plan Zuzentzailea 2008-2011 onetsi du Jaurlaritzak aste honetan bertan.

Bestalde, etorkinak gizarteratzen lagundu dugu Inmigrazioaren II. Euskal Planaren bitartez eta *Ikasle Etorkinak Euskal Eskoletan Integratzeko Programaren* bitartez.

Jakin badakit batzuek, aurreiritzi sozialengatik edo ezjakintasunagatik, mehatxutzat hartzen dituztela etorkinak.

Etorkinak, beste ezeren aurretik eta gainetik, pertsonak dira eta ezin dira gaizkiletzat jo, ez eta nahieran hartu eta eraman daitezkeen objektutzat ere. Horregatik, Jaurlaritzak argi utzi du, Euroganberak, etorkinak itzularazteko, ekainaren amaieran onartu zuen zuzentarau europarraren kontra gaudela. Zuzentarau lotsagarria da, nazioarteko legeak zein giza eskubideen gutuna urratzen dituen, eta horregatik formalki eskatu diogu Espainiako Gobernuari hemen Euskadin ez dezala aplikatu.

Tabu zaharrak apurtzeko garaia dugu. Etorkinak gure parekotzat hartu behar ditugu, gure berdin izan behar dute bai eskubidez bai betebeharez. Baina, dakarten aberastasun humano eta kulturala aitortu eta eskertzeaz haratago, euskal gizarte osoak ulertu behar du izugarritzko ekarpena egiten diotela gure ekonomiaren hazkunderari. Hori argi geratzeko, esan dezadan etorkin bakoitzak 5.300 euro ematen dituela zergen bidez, eta eragiten duen gastu soziala, ordea, 2.900 eurokoa dela.

II.- 15.-Gure kontu publikoen kudeaketa egokia egin dugu, eraginkor eta arduratsu.

Euskadiri finantza-kaudimen maila gorena aitortzen diote nazioarteko rating agentzia nagusiek.

Legealdi honetan gauzatu ditugun hainbat eta hainbat ekimenek kudeaketa-lan eskerga eragin digute eta, halere, baliabide publikoen kudeaketa arduraz eta seriotasunez hartu dugu.

Legealdi honetan, gure finantza- eta zerga-sistema sendotu dugu: Estatuarekin *Kupoaren Bost urteko Legea* onartu dugu, Foru Aldundien eta Gobernuaren arteko *Ekarpenen Legea* onartu dugu, eta *Finantzen Euskal Institutua* ere eratu dugu, 2008 urte honetako Aurrekontuen Legearen barruan.

Gainera, gure autogobernuarentzat berebiziko bultzada eta sostengua lortu dugu aurten, Luxenburgon Europako Auzitegiak aldeko ebazpena eman baitio gure Kontzertu Ekonomikoari. Estatu espainiarrean hainbat urtez, behin eta berriz, Kontzertuaren kontrako erasoak jasan ondoren, pasa den irailaren 11n, Europak gure alde egin du eta izugarritzko bultzada juridikoa eman dio gure Kontzertuari. Hemendik aurrera, lehiakortasunaren eta gizarte-kohesioaren alorrean askoz ere politika aktiboagoak garatzeko moduan izango gara eta bazter batean utziko dugu

—betiko izango ahal da— gure Kontzertuagatik Espainiako erkidegoengandik jasan behar izan dugun judizializazioa.

Dena dela, ulertzen dut Europan Kontzertua errekonozitzea denentzat ez dela pozgarri. Baina, halere, ezin dut aipatzeke utzi bai Jaurlearitzak eta bai Eusko Legebiltzarrak, 2007aren amaieran, Kontzertuaren inguruan eskaera jakina egin geniola Espainiako Gobernuari, hain zuzen, Lisboako Itunari Adierazpen Gehigarri bat egin ziezaiola, gure Kontzertua Europan aitortutzat emateko. Eta, bistan da, ez zuten onartu. Gainera, Legebiltzar honek berak ez legezko proposamena helarazi zien Espainiako Gorteei Euskal Kontzertu Ekonomikoa blinda zezaten, Konstituzio Auzitegiko Legea zein Botere Judizialaren Legea eraldatuz horretarako. Proposamen hura, Euskal Ganberako talde politiko guzti-guztien babesa jaso zuen arren, atzera bota zuten Gorteetan, Alderdi Popularraren eta Alderdi Sozialistaren botoei esker. Datu objektiboak dira horiek, hortxe geratuko dira historiaren memorian, nabarmen utziz, beste behin ere, “han eta hemen, bi aldeetan batera” egon nahi izan duena. Izan ere, erabat hipokrita da Euskadin Kontzertu Ekonomiaren defentsa egitea eta, aldi berean, epaitegietara eramatea beste autonomietan. Luxenburgoko ebazpena paregabeko abagunea dugu Kontzertua behingoz eta erabat blindatzeko, baita Espainiako Parlamentuan ere. Espero dugu Alderdi Popularra eta PSOE koherente eta arduratsu izango direla Ganbera honetan defendatzen dutenarekin, Kontzertua behin betiko blindatzea lortuko badugu.

Labur esateko, espero dugu bozka berdina eman dezazuela han eta hemen, osterantzean ez dizuegu sinetsiko.

Hona hemen, bada, legealdi honetako balantze orokorra, alderdi eta maila guztietan Euskadik aurrera egin duela erakusten duena. Ez dut esan, alabaina, nahi izan genukeen guztia egiteko modurik izan dugunik. Aurrera egin dugula, horixe besterik ez diot. Baina ez ditut albo batera utzi nahi oraindik ere barne nahiz kanpoko elkarrizketa asko behar duten bestelako ekimenak.

Hala nola, Gizarte Zerbitzuen Lege proiektua, Familiari Laguntzekoa eta Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea, bai eta Udal Legearen proiektua, gaur egun izapidetzen ari dena, funtsezkoak dira Euskadiko gizarte-egituraketa eta udal-egituraketa sendotzeko. Izan ere, erantzukizun handia behar izango dugu elkarren artean topaguneak aurkitzeko, eta, hala, legeok ahalik eta adostasun handienarekin onartzeko.

Legealdi honetan gidari izan dugun lankidetzaz gogo hori bera izango dugu aurrerantzean ere gidari gure lanean. Denon arteko adostasunaren bila ibiliko gara, behin eta berriz, oraindik ere arazo asko ditugulako konpontzeko eta, batez ere, krisi ekonomiko larria datorkigulako gainera, gizarte moduan elkar hartuta baino menderatuko ez duguna.

III. ATALA:

AURRERA EGIN DUGU, BAINA ORAINDIK ERE LAN HANDIA DUGU EGITEKO. EKONOMIA-KRISIARI AURRE EGITEKO, GOBERNUAREN JARDUERA BOST ARDATZ HAUETAN OINARRITUKO DA: INBERTSIO GEHIAGO, BERRIKUNTZA GEHIAGO, NAZIOARTEKOTZE GEHIAGO, GIZARTE KOHESIO GEHIAGO ETA AUTOGOBERNU GEHIAGO.

Euskadi hobeto ari zaie eusten ekonomia-krisiaren erasoei; Espainiako estatua baino eta Europako herrialderik garrantzitsuenak baino hobeto. Geuri ere eragiten digu krisiak, baina hobeto ari gara eusten, ekonomi egitura dibertsifikatuagoa daukagulako, industria-sarea lehiakorragoa delako, enpresa txiki eta ertainak ez daudelako hain zorpetuta eta kontu publiko saneatuagoak ditugulako. Baina ezin gaitu loak hartu.

Gure kontu publikoak saneatuta izateak ematen dizkigun aukerak erabili egingo ditugu, eta, horrela, ekonomia dinamizatzeko eta gizarte kohesio handiagoa lortzeko politika bat jarriko dugu martxan, kiointura zail honetatik onik irten gaitezen.

Duela gutxi, Espainiako Gobernuak presidenteordeak, Solbes jaunak, Madrileko foro ekonomiko batean, onartu egin zuen jendaurrean 400 euroen itzulketak aukera gabe uzten duela Espainiako Gobernuak.

Ez da hori euskal erakundeen kasua.

Gure kasuan, krisiari eraginkortasunez aurre egiteko plana ez dago “martxan jartzekotan”, dagoeneko “martxan jarrita” daukagu-eta. Lau zutabetan dago oinarrituta plan hori: Inbertsio Gehiago, Berrikuntza Gehiago, Nazioartekotze Gehiago eta Gizarte Kohesio Gehiago. Baina lau zutabe horietaz gain, gaur egun, inoiz baino garrantzitsuagoa da bosgarren osagai bat eskatu eta aldarrikatzea: Autogobernu Gehiago. Krisiaren kontra borrokatzeko eta euskal ekonomia suspertzeko, Gernikako Estatutuak legez onartzen dizkigun baliabide guztiak behar ditugulako.

III. 1.- Inbertsio Gehiago

Ekonomia Bizkortzeko Plana bultzatuko dugu, eta, era berean, inbertsio pribatua dinamizatuko dugu, ekonomiaren moteltzeari erantzun antiziklikoa emanez.

Joan den ekainaren 20an, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek akordio instituzionala sinatu genuen ekonomia bizkortzeko asmoz, eta akordio horren barruan 12.800 milioi euro esleituko dira datozen urteotan. Plan horretan ezarri dugunez, inbertsio publikoa azkartu egingo da, eta gure jarduera sei ardatzetan oinarrituko da: komunikazio eta telekomunikazio-azpiegiturak; azpiegitura ekonomiko eta teknologikoak; osasun-, hezkuntza- eta gizarte- azpiegiturak; kultur eta kirol azpiegiturak; azpiegitura hidraulikoak eta ingurumen arlokoak; eta ekonomia dinamizatzeke ekimenak.

Joan den uztailan, Fondo Estrategiko bat ere ipini genuen martxan, inbertsio industrialeko proiektu handiei laguntzeko asmoarekin. Fondo horretarako 400 milioi ezarri dituzte Jaurlaritzak eta Euskal Finantza Erakundeek; eta irail honetan Enpresa Berrien Sustatzaileen Fondoa jarri dugu martxan. Egunero ari gara erabakiak hartzen krisiari aurre egiteko, eta horrela jarraituko dugu.

Urrian, enpresari autonomoei laguntzeko programa berri bat aurkeztuko dugu, eta merkataritza-sektorean belaunaldi-ordezkapena sustatzeko programa bat ere bai.

Eta ekonomia dinamizatzeke bide horretan, jakinarazi nahi dizuet Gobernu euskal enpresek egingo dituzten hamaika inbertsio-proiektu estrategiko aztertzen ari dela. Inbertsioak, besteak beste, informatikaren sektorean, makina-erremintaren sektorean edo eraikuntzan egitekoak dira, eta 500 milioi eurotik gora sartuko dira. Datozen hilabeteetan zehaztuko da inbertsio-proiektu horien nondik norakoa.

Gainera, hona hemen Jaurlaritzak laster martxan jarriko dituen ekimen batzuk:

- Landa eremuetako eta arrantza eremuetako ekonomia bultzatzeko programa berria.
- Enpresen, eta, batez ere, enpresa txiki eta ertainen inbertsioei laguntzeko finantza-programetarako, Barne Produktu Gordin nominalaren hazkundera bermatuko dugu.
- Makina-erremintaren Plan Renove berria jarriko dugu martxan, enpresa txiki eta ertainentzat.
- Euskal Y-aren beste lau zati esleituko dira, 240 milioi euroan.
- Metroaren 2. linearen garapena, Santurtzi, Kabiezes eta Basauriraino.
- Etxebarri eta Txurdinaga arteko metroaren 3. lineako lehenengo zatiaren lizitazioa.
- Loiolako erriberen aldageltokia eta Donostiako merkantzien ingurabidea.

- Gaisteizeko tranbiaren lanak bukatu egingo dira abenduan, eta Leioa eta Unibertsitate Campusaren arteko tranbia eraikitze lanen lizitazioa egingo da.
- Bilboko tranbiaren luzapena Basurtu eta Rekalde artean.
- Azpiegitura hidraulikoen dinamizazio programa.
- Finantzen Euskal Institutua martxan jarriko da.

III. 2.- Berrikuntza Gehiago

Gure lehiakortasuna hobetzeko eta oraingo krisia eta etorkizunekoak gainditzeko errezetarik onena Berrikuntza da.

Horrela, “Euskadin egina” markaren ordez “Euskadin sortua” marka nagusitzea lortu behar dugu, munduan “Berrikuntzaren Herri” gisa ezagutu gaitzaten.

Irailean bertan, 100 milioi euroko hitzarmen bat sinatu dugu Arcelor-Mittal-ekin. Enpresa hori siderurgia arloan liderra da mundu mailan, eta, hitzarmen horren bidez, altzairuaren zentro teknologiko bat eraikiko dugu, Europan eta mundu osoan erreferentea izan dadin. Eta ekimen horrez gain, azpimarratzekoa da Microsoft multinazionalak hartutako erabakia, Bizkaian eta Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean bi ikerketa-zentro martxan jartzeko.

Konbentzituta gaude berrikuntza dela oinarririk sendoena industria-sare osoaren lehiakortasuna hobetzeko eta gaurko eta biharko enplegua ziurtatzeko.

Hori dela eta, legegaldi honetan bultzatutako ekimenez gain, luze gabe garatuko ditugun proiektu batzuk aurreratuko dizkizuet:

- Ikerketa matematikoko bikaintasun zentro bat martxan jartzea.
- Neurolengoaia eta ezagutzara bideratutako ikerketa zentro bat eratzea.
- Mutrikun energia sortzeko planta bat jartzea, mareen energia ikertzeko proiektu batean oinarrituta.
- Eta, gainera, proiektu estrategiko legez, Gobernuaren iritziz ezinbestekoa da beste bultzada bat ematea Espalazio bidezko Neutroien Iturria jartzeko proiektuari. Espainiako gobernuarekin batera ari gara gure hautagaitza defendatzen. Helburu hori lortzeko, beharrezkoa da hiru arlo hauetan lan egitea: lehenengo eta behin, gai honetan ezarri beharreko ikerketa-estrategia garatu behar da, ikerketa neutronikorako zentro bat eratuz, zientzia eta teknologiako euskal sarearen gaitasunak erabilia; bigarrenik, nahitaezkoa da Espainiako gobernuak bere gaitasun diplomatiko guztia erabiltzea, orain arte baino askoz indar handiagoz; eta hirugarrenik, proiektu honen finantziazioan hartutako konpromisoa modu nabarmenean areagotu behar dugu denok batera. Hiru bektore horietan lan eginez gero, indartu egingo dugu gure hautagaitza eta arrakastarako bidea askoz errazagoa izango da.

III. 3.- Nazioartekotze Gehiago

Krisia aukera bat da euskal enpresen merkatuak dibertsifikatu eta handitzeko.

Nazioartekotzea behar-beharrezkoa da bizirik irauteko eta lehiakorragoak izateko. Gobernuak erabaki sendoa hartu du enpresei merkatu berrietara irekitzen laguntzeko eta bidea errazteko. Horrela, azken hamar urteotan, SPRIren bitartez, berrogeita hamar herrialdetan dagoen nazioarteko sare zabala osatu dugu, euskal enpresei euskarri egokia eskaintzeko.

Kanpo sare hori indartzen jarraituko dugu, eta, horren harian, jakinarazi nahi dizuet bi bulego berri irekiko ditugula Errusian eta Indian, aurtan bertan Aljerian eta Estatu Batuetan ireki ditugunez gainera. Eta hori guztia osatzeko, datozen hilabeteetan, zabaldu egingo da aholkularien sarea beste sei herrialdetara: Kanada, Bulgaria, Ukraina, Irlanda, Filipinak eta Jugoslavia ohia; aurtan bertan, Aljerian, Eslovenian, Irlandan eta Tailandian ezarri diren aholkulariekin batera.

Bestetik, “Basque Business Platform-Euskarri” gisa ezagutzen diren industria-plataformak bultzatuko dira Filadelfian eta Indian; dagoeneko badago horrelako bat Polonian eta duela gutxi beste bat inauguratu da Txinan, Mondragon taldeak bultzatuta eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

Era berean, enpresa txiki eta ertainei zuzendutako programak indartuko dira, Merkataritza Ganberekina batera, kanpoko merkatuetara irekitzen laguntzeko.

III. 4.- Gizarte Kohesio Gehiago

Pertsonak dira gure kezkarik garrantzitsuena. Ondo prestatutako pertsonak eta ondo zaindutako pertsonak, ez baita bidezkoa krisia gure gizartean txartoen daudenek ordaintzea.

Ekonomia dinamizatzeko neurrien ondorioz ez da gizarte-gastua gutxituko. Alderantziz, ondo dakigu, zailtasun egoeretan, erakundeek sentiberagoak eta solidarioagoak izan behar dugula beharrezkoak handiena duten pertsonekin. Eta horren adibide ona da Pentsioak Osatzeko Legea onartu izana. Herri honetan, alargunek eta pentsionistek, joan den uztailetik hona, lanbide arteko gutxieneko soldataren %100 kobratzeko eskubidea daukate. Aurrerapauso handia izan da gizarte arloan. Horren harian, argi eta garbi adierazi nahi dut gizarte-gastuarekin daukagun konpromisoa, izan ere, horrela dago islatuta Aurrekontuen Proiektuan, laster Legebiltzarreko taldeei negoziatzeko bidaliko diegun proiektuan.

Ez da inor bazterrean geratuko. Bete egingo ditugu hartuta daukagun konpromisoak gizarte-prestazioen arloan, gizarte-larrialdirako laguntzetan, etxebizitza sozialetan, oinarritzko errentan eta euskal herritarrei legez onartutako gainontzeko eskubide sozialei dagokienez. Gastu sozialaren arloan daukagun konpromisoa betetzeko gehiago zorpetu behar badugu, egin egingo dugu.

Gainera, gizarte-izaera nabarmena izango duten ekimenak bultzatzen jarraituko dugu, osasunaren arloan, hezkuntzaren arloan, zerbitzuetan, kulturaren eta iraunkortasun alorrean.

Hori guztia dela eta, gaur egun indarrean dauden ekimenak osatzera etorriko diren ekimen hauen berri eman nahi dizuet:

- Lan-eskaintza publiko baten deialdia egingo da, osasun arloan 2.000 plaza berri eskainiz.
- Garapen iraunkorra bultzatuko dugu; horretarako, industria eta merkataritza jatorriko hondakinak kudeatzeko planak onartuko dira eta, era berean, Hondakin Arriskutsuak Kudeatzeko Plan berria onartuko da 2008-2011 eperako.
- Lurzoru kutsatuak kudeatu eta berreskuratzeko zentro bat sortuko dugu.
- Euskal finantza erakundeekin akordio bat sinatuko dugu, babespeko etxebizitzak eskuratzeko maileguen baldintzak hobetzeko asmoz.
- Euskadiko gizarte-zerbitzuen plan estrategikoa onartuko dugu, erakunde guztien laguntzarekin, gaur egun Legebiltzarrean dagoen Lege Proiektuan ezarritako neurriak garatu eta aplikatzeko.
- Euskadin etorkinen eskubide eta betebeharrak arautzeko dekretu bat onartuko dugu eta Garapenerako Euskal Agentzia jarriko dugu martxan.
- Datozen sei hilabeteetan babes sozialeko 4.000 etxebizitza berri eraikitzen hasiko gara.
- Osasun arloan, datozen hilabeteetan, sei osasun zentro berri irekiko dira, eta beste bosten eraikuntza lanak hasiko dira: Araban, Lakuan, Zabalganan eta Salburuan egongo dira; eta Bizkaian, berriz, Larreagaburun eta Astrabuduan.
- Gainera, Urdulizeko ospitale berria eraikitze lanak hasiko dira, eta Txagorritxu, Gurutzeta, Basurtu, Galdakao, Donostia eta Mendaroko ospitaleak handitzeko lanak ere bai.
- Azkenik, hemendik oso gutxira, osasun arloan, zerbitzu eta prestazio berriak jarriko dira martxan, esate baterako, "zilbor-hestearen odol-bankua" edo koloneko kantzerra prebenitzeko programa 50 urtetik gorakoentzat.

III. 5.- Autogobernu Gehiago

Transferitu gabe dauden eskumenak berehala transferitzeko eskatzen dugu, krisiari aurre egiteko eta euskal gizartearen ongizatea areagotzeko.

Autogobernua behar-beharrezko osagaia da krisi ekonomikoaren kontra borrokatzeko. Hori dela eta, irmo eta tinko eskatzen dut, behingoz, Gernikako Estatutua osorik bete dadin, eta oraindik transferitu gabe dauden 37 eskumenak transferitu ditzatela, Estatutuan ezarritako eta Eusko Legebiltzarrak onartutako prozedura eta zerrendarekin bat etorriz.

Laneko istripuak, enpleguaren egonkortasuna, lan munduan sartzeko lanbide heziketaren hobekuntza, lan merkatuaren funtzionamendua, ikerketa gaurko eta etorkizuneko enpleguaren berme gisa, etab. benetako arazoak dira; euskal herritarrei zuzenean eragiten dieten arazoak, eta ekonomiaren krisiaren ondorioz larriagotu egiten dira arazo horiek.

Eta, hain zuzen ere, Espainiako gobernuak transferitu ez dituen arloekin zerikusia duten arazoak dira.

Duela 30 urtetik hona bete gabe dagoen Lege Organikoaren arabera eskura izan beharko genituzkeen baliabideak izatea eragozten ari da Espainiako gobernua; eta ez hori bakarrik, izan ere, sarritan, euskal erakundeek krisi ekonomikoaren ondorio txarrei aurre egiteko eta euskal herritarren ongizatea areagotzeko hartutako ekimenen kontra egiten du.

Jarrera ulertezin hori erakusten duten hiru adibide emango dizkizuet:

- Laneko istripuen kontrako borroka eraginkorragoa izango litzateke Eusko Jaurlaritzak laneko ikuskaritza transferituta izango balu eta hutsune hori betetzeko duela gutxi onartu ditugun errekurtsioak Espainiako gobernuak ez balitu errekurrituko.
- Laneratzea hobetu egingo genuke eta langabetuentzako lana eraginkortasun handiagoz topatuko genuke, baldin eta INEMen bulegoen transferentziak izango bagenu eta Lanbide-ren bidez euskal enplegu bulegoen sare oso bat garatu ahal izango bagenu.
- Enpresen lehiakortasunak eta, beraz, enpleguaren sorrerak, bultzada nabarmena izango lukete, ikerketa teknologikoko eskumena transferitu izan balitz, Estatutuan jasota dagoenez. Ia 30 urte itxaroten egon ondoren, ministro berria ezin da Bilbora etorri transferentzia hori ez dela egingo esatera. Ekitaldi publiko batean egin zuen hori, eta Euskal Sozialisten Idazkari Nagusiaren txalo artean, *“euskal gizartearentzako horixe delako onena”* esanez. Ez da onargarria.

Hiru adibide horiek argi eta garbi erakusten dute Espainiako gobernuak Estatutua betetzeari dagokionez daukan jarrera.

Orain dela gutxi, Espainiako gobernuaren presidentek jendaurrean adierazi du prest dagoela ikerketa eta enplegu-politika aktiboen transferentziak negoziatzeko, EAJko talde parlamentarioak Estatuko aurrekontuak babestean ordainean. Berrero ere prezio politikoa ordaintzea exijitzen zaigu euskaldunoi, Legearen arabera aspalditik geureak izan beharko liritekeen transferentzia batzuk lortu ahal izateko. Dena dela, asko poztuko nintzateke hainbestetan eskatutako aldarrikapen hori gauzatuko balitz. Baina zalantza handiak dauzkat, kontuan izanda duela bost egun eskas, Zientzia eta Teknologia Ministroa bera Espainiako gobernuaren presidentek esandakoa zuzentzera etorri dela berrero ere; beste behin, transferentzia ukatu baitu Bilbon egindako ekitaldi publiko batean. Benetan ere, ez dakit zertan ari diren, baina, tira, ez da itxaropena galdu behar.

Hala ere, negoziazio horren emaitza alde batera utzita, Espainiako gobernuaren presidentetatik Zapatero jauna izan da historian, bere lehenengo agintaldian eta gaur egunera arte, Euskadiri transferentzia bat bera ere egin ez dion presidente bakarra. Dagoeneko ez dio inork kenduko meritu triste hori.

Balantze eskasa; euskal gizarteari zigor erantsia dakarkiona.

IV. ATALA:

GIZA ESKUBIDEEN ETA BAKEAREN ALDEKO GURE KONPROMISO ETIKOA BETETZEKO BIDEAN AURRERA EGIN DUGU.

Argi dago ez garena bakearen hitzordura heldu. Denok hartutako konpromiso hori oraindik bete gabe daukagu.

ETAk, beste behin, gizartean elkarbizitzarako funtsezkoa den printzipioari eraso dio: bizitzeko eskubideari, alegia; berrero ere, pertsona errugabe bat hil baitu, joan den astelehenean, hilaren 22an, Kantabrian. ETAk desagertu egin behar du, mina eta sufrimendua baino ez duelako eragiten.

Hala ere, zailtasunak zailtasun, biolentziaren amaierara eramango gaituen bideak ez du atzera-bueltarik, eta euskal gizartea prest dago bide hori egiteko, eta ETAk ezin izango du gelditu.

Baina giza eskubideen eta askatasun zibil eta politikoen defentsan ere bide luzea daukagu oraindik egiteko. Duela gutxi, Auzitegi Gorenak legez kanpo utzi ditu EHAK eta ANV, Alderdien Legearekin martxan jarritako estrategia politikoa berretsiz. Estrategia horrek elkarriketaren kriminalizazioa eta euskal gizartearen zati baten bazterketa demokratikoa eragin du.

Estrategia horretan hauteskunde-interesak ere badaude, eta ez du konponbidea ekarriko. Hain justu, kontrako bidetik garamatza, izan ere, elkarriketak eta giza eskubide eta pertsona guztien errespetuak, bazterketarik gabe, eramango gaituzte normalizazio politikora eta bakera.

Gobernu Programan, egunero-egunero giza eskubideen defentsan bazterketarik gabe lan egiteko konpromisoa hartu genuen. “*Giza eskubide guztiak pertsona guztientzat*”. Hori da gure bidea eta euskal gizartearen gehiengo osoarena.

Lagundu egin diogu euskal gizarteari bide hori egiten; euskal gizartea gidatu nahi izan dugu bide horretan, eta, benetan ere, gure konpromiso etikoa betetzen aurrera egin dugula pentsatzen dut.

Legealdiaren hasieran, Bakearen eta Bizikidetzaren aldeko Plan Integrala onartu genuen. Plan horrek zeharkako jarduera asko dauzka, eta 60 ekimen aurreikusi dira hainbat jarduera-ardatzetan banatuta. Plana Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoak kontrastatu du eta, urteroko lehen ebaluazioan, nazioarteko hainbat adituk eta erakunde ospetsuk beren babesaz azaldu diote.

Orain, 2008. urteari dagokion bigarren txostena prestatzen ari gara. Urtea bukatu baino lehenago bidaliko dugu Legebiltzarrera, baina dagoeneko esan dezaket planaren betetze maila oso altua dela: terrorismoaren biktimenganako begirunearen arloan, eskubide eta askatasun demokratikoen defentsari dagokionez, frankismoaren biktimen memoria historikoa berreskuratzeko lanean eta bakerako heziketaren arloan.

IV. 1.- Aurrera egin dugu terrorismoen biktimenganako begirune eta elkartasunean

Euskal Gobernuak eta erakundeek terrorismoaren biktimekin geneukan konpromiso etiko eta materiala sakontzen jarraituko genuela hitzeman genuen.

Horrela, 2007ko apirilean, terrorismoen biktimei erakundeen aldetik begirunea aitortzeko ekitaldi hunkigarria egin genuen Euskalduna Jauregian. Bertan, Gobernuaren ordezkari legez, barkamena eskatu nuen denen aurrean, biktimei euskal gizarte guztiaren aldetik merezi duten laguntasuna eta hurbiltasuna behar bezala transmititzen jakin ez dugulako.

Ekitaldi hori berriro egin da aurten Donostiako Kursaal jauregian, gizartean terrorismoa deslegitimatzeke asmoz.

Gainera, bai Gobernuaren eta Legebiltzar honen bitartez zein euskal udalen bitartez, sarritan hurbildu izan gara biktimengana gure elkartasuna adierazteko; eta ez Euskadin bakarrik, Estatu osoan ere bai.

Baina, terrorismoaren biktimekiko konpromisoaren erakusgarririk onena, beharbada, joan den ekainean Terrorismoaren biktimei elkartasuna erakusteko Legea onartu izana dugu. Lege aurrendaria da Estatuan eta Europan, eta bertan jarduera integrala aurreikusten da terrorismoaren biktima guztientzat, ETAko biktima, GALeko biktima zein eskuin-muturreko beste talde terrorista batzuetako biktima izan, eta Memoria, Duintasun eta Justizia printzipioak bermatzen ditu.

IV. 2.- Bete egin dugu eskubide eta askatasun demokratikoen defentsarekin hartutako konpromisoa

Eskubide eta askatasun demokratikoen defentsa dela-eta, Gobernuak, legealdi honetan, eskubide zibilak eta politikoak defendatzeko Ekintza Plana onartu du. Plan horretan, besteak beste, Alderdien Legea indargabetzeko eta kartzela-politika aldatzeko eskariak jaso dira, bai eta terrorismoaren kontrako legeria aldatzeko ere.

Erakundeetatik behin eta berriro, eta modu irmoan, adierazi dugu komunikabideak ixtearen kontra gaudela, izan ere, adierazpen askatasunerako eskubidea oso modu larrian urratzen baitu horrek. Gainera, sei urte baino gehiago daramatzate epaiketaren zain.

Atxilotutako pertsonen giza eskubideak errespetatzeko konpromisoa hartu dugu. Horrela, Estatuko segurtasun kidegoetatik Ertzaintza izan da lehenengoa atxilotutako pertsonen arretarako protokolo bat ezartzen. Eta, hain zuzen ere, terrorismoaren kontrako borrokan giza eskubideetarako Nazio Batuen errelatore bereziak oso modu onean baloratu du protokolo hori.

Gainera, herritarrek Bakea eraikitzen parte hartzeko Konpondu izeneko ekimena jarri dugu martxan. Ehun udaletik gora batu dira ekimen honetara eta milaka lagun ari dira bertan parte hartzen, udal foroan bitartez eta Interneten bitartez beren ekarpenak eginez.

IV. 3.- Frankismoaren biktimekin genuen zor morala bete dugu

Legealdi honetan, eta gerra zibilaren 70. urteurrena dela-eta, kitatu egin dugu, neurri baten behintzat, euskal gizarteak frankismoaren biktimekin zeukan zorra.

Gerra-garaiko umeak omentzeko, fusilatutako eta desagertutako pertsonak omentzeko eta Gernikako bonbardaketa gogora ekartzeko programa zabal bat prestatu dugu. Gainera, desagertutako eta hilobi komunetan ehortzitako gorpuk berreskuratzeko prozesua bultzatu dugu, eta, Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzarekin garatutako programa baten bidez, gorpu horiek identifikatzeari ekin diogu.

Aldi berean, Estatuak onartu zuen Amnistiaren Legetik kanpo geratutako frankismoaren biktimentzako kalte-ordainen programa bat garatu dugu.

IV. 4.- Elkarrizketa eta Bakerako Hezkuntza bultzatzeko bidean eragileak izan gara

Inbestidura-saioan, bakea eta bizikidetza modu eragingarrian bultzatuko nituela, Bakea ekartzeko elkarrizketa dinamizatuko nuela, hitzeman nuen.

Lehendakari gisa, babestu egin nuen herritar guztien aurrean bake-prozesuaren azken saiakera. Saiakera horrek ez du aurrera egin, baina, bere garaian esan nuen saiakera zintzoa izan zela, aurrekoak bezala, eta gaur ere horrela pentsatzen dut.

Momenturik zailenetan ere, bazterketarik gabe, elkarrizketari eusteko eta elkarrizketa bultzatzeko prest egongo nintzela hitzeman nuen. Hitza eman nuen eta bete egin dut, ziur bainago elkarrizketa dena arazoak konpontzeko bidea.

Eta, hain zuzen ere, nire hitza betetzearren, hitz egitearren, Lehendakaria, historian lehenengoz, zigor auzibidean jarri dute.

Ulertezina bada ere, elkarrizketa horretan Lehendakariak parte hartu duenean, Ezker Abertzaleko ordezkari politikoekin, kriminalizatu egin dute, baita zigor auzibidean jarri ere; baina elkarrizketan Espainiako gobernuak parte hartu duenean, talde terrorista batekin gainera, eta nik ondo deritzot, Bakea bilatzeko ahalegin goresgarria egin duela esaten dute.

Benetan ere, gauza horiek ulertzen zailak dira Espainiako justizia auzitegiek hartutako erabaki batzuen aurrean zurtuta dagoen gizarte batentzat. Dena dela, nire betebeharra bete dut eta betetzen jarraituko dut.

Gobernutik gelditu gabe jarraituko dugu bakearen alde lan egiten. Bakea proposamen iraultzailea da, indarkeriarik ez izatea ez ezik, beharrezkoa baitu elkarrizketa eta elkarren arteko errespetua ere, benetako bake kultura bat eraikitzeko.

Etengabeko prozesu honetan, bakerako hezkuntza oso-oso garrantzitsua da.

Helburu hori lortzeko, Bakerako Hezkuntzarako Euskal Plana ipini da martxan, duela gutxi Giza Eskubideen Batzordean eztabaidatu ondoren. Nazio Batuen gomendioak beteta, Estatuan egindako lehenengo Plan Estrategikoa da hori, eta 7 miloi euro esleituko zaizkio. Lehenengo esperientzia pilotuak egin dituzte zenbait ikastetxetan, eta terrorismoaren biktimen lekukotzak ere eman dira bertan. Esperientzia hori erabilita, datorren urtean eskola komunitate osora hedatuko da plana.

IV. 5.- ETAk Bakerako eta Elkarbizitzarako oztopo nagusia izaten jarraitzen du

Bakerako eta Elkarbizitzarako bidean, ETA da oraindik ere euskal gizartearen oztopo nagusia.

Argi dago ETAk mina eta sufrimendua eragiteko gaitasuna duena, azken atentatuetan erakutsi duenez, baina egia da era berean bere garaia amaituta dagoena.

Euskal gizarteak kendu egin dizkio ETARI giltza eta protagonismoa. Hori da legealdi honetan jazo den aldaketarik garrantzitsuena. ETAk sekula ez du erabakiko euskal gizartearen etorkizuna.

Indarkeriak ez du inolako legitimazio etiko, politiko ez sozialik. Ahal bezain azkar konpondu beharreko oztopo tamalgarria dugu. ETAk badaki hori, eta bide bakarra har dezake: zalantzarik gabe adieraztea terrorismoa uzteko asmo sendoa duela, eta euskal ordezkari politikoaren esku uztea arazo politikoaren konponbidea.

Horixe eskatzen dio ETARI gizarte osoak aho batez. Bakerako eskubidea aldarrikatzen ari gara. Gutariko denok esan nahi diogu ETARI, argi eta garbi, irten dadila behin betiko gure bizitzetatik.

Ozen eta garbi exijituko diogu ETARI, behingoz eta betiko, errespetatu ditzala Euskal Herriaren hitza eta erabakia eta, ondorioz, ez dezala inor gehiago hil ez kaltetu.

V. ATALA:

AURRERA EGIN DUGU, EUSKAL GIZARTEAREN ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREKIN DUGUN “KONPROMISO DEMOKRATIKOA” BETETZE BIDEAN

V. 1.- Eztabaida politikoaren gunean jarri dugu euskal gizartearen erabakitzeko eskubidea

Ezin da haizetan hesiak eraikitzen ibili. Ezin da behin eta berriz auzitegietara jo, eta alanbre-hesi hori erabili, euskal herritarrek iritzia eman dezaten eta horri buruz kontsulta egin diezaieten duten eskubidea debekatzeko.

Bene-benetan, uste dut aurrera egin dugula gure “konpromiso demokratikoa” betetze bidean. Eta hala egin dugu, Eusko Legebiltzarrean euskal gatazka konpontzeko bide demokratikoa planteatzeko behar den lidergoa eta adore politikoa izan dugulako. Ziklo politiko berria ireki dugu, eta euskal gizarteari eman diogu konponbidearen giltza. Argi eta garbi esango dut: Euskadiren etorkizuna ezin da Espainiako Gobernuaren eta ETAREN arteko negoziazioaren bidez erabaki. Euskadiren etorkizuna ez dago, inondik inora ere, ETAREN eskuetan, ez eta Espainiako Gobernuaren eskuetan ere; euskal gizartearen eskuetan dago, adinez nagusia delako dagoeneko gure gizartea, eta ez du inoren zaintzapean egon beharrik, ez eta inork inposatutako ezer bete beharrik ere.

Euskal gizarteak barneratu du gure etorkizuna erabakitzeke eskubidea eskubide demokratikoa dela, eta Euskadin bizi garen eta lan egiten dugun guzti-guztiori dagokigula. Zein pentsaera dugun eta nori bozkatzeko diogun kontuan hartu gabe.

Herritarren parte hartzeko eskubidea ez da proiektu politiko bat, printzipio demokratiko bat baizik, eta, beraz, eskubide hori onartzeaz haratago, bultzatu, indartu eta sustatu ere egin behar du Europar estatu demokratikotzat aitor dezaten nahi duen estatu orok. Herritarren parte-hartzeak indartu eta batu egiten du gizarte demokratikoa. Zatiketa ez du eragiten galdera egiten duenak, kontsulta debekatzen duenak baizik.

V. 2.- Euskal gatazka konpontzeko ibilbide-orria aurkeztu dugu, eta, argi bereizi ditugu, batetik, ETAren indarkeriaren amaiera, eta, bestetik, normalizazio politikoaren prozesua, soil-soilik euskal alderdi politikoei dagokiena.

ETAren eta Espainiako Gobernuaren azken negoziazio-prozesuak porrot egin du, baina horrek ezin du oztopo izan arduradun politikook aurrera egiteko ekimen politikoak aurkez ditzagun.

Ez dut inola ere onartzen ETAk erabakitzea noiz piztu edo noiz itzali gure gizartearen itxaropena.

Bakeak ez du prezio politikorik, baina politikak asko egin dezake eta asko egin behar du Bakea lortzeko.

Indarkeriari aurre egiteko modurik hoberena politika egitea eta konponbiderako aukerak proposatzea da.

Hain zuzen helburu horrekin, iazko Politika Orokorrari buruzko saioan, euskal gatazkaren konponbideari ekiteko ibilbide-orria aurkeztu nuen erakunde-mailan.

Ibilbide-orri horretan, Espainiako Gobernuak presidentearekin Itun Politikoa lortzea zen lehenengo urratsa; ondoren Eusko Legebiltzarrak berretsiko luke itun hori, eta azkenik euskal gizarteari kontsulta egingo litzaioke. Hainbat hilabeteen erantzunik jaso ez nuenez, Rodriguez Zapatero presidenteari negoziatorako atea zabalik zituen proposamena egin nion formalki, hain justu, aurretik Loiolako elkarrizketetan Alderdi Sozialistak bere gain hartu zituen konpromisoetan oinarritutako proposamena.

Erantzuna hauxe izan zen: hiru ezezko. Ez elkarrizketari. Ez negoziatorari. Ez kontsultari.

Bitxia da: Espainiako Gobernuak uko egin zion lehendakariarekin negoziatzeari, zertaz eta aurrez ETArekin negoziatzen aritu zen gai berberetz. ETArekin bai; lehendakariarekin, ordea, ez.

Berriro ere blokeoa. Berriro ere iraganen porrot egin zuten estrategiak.

Ukazioaren harresiaren aurrean, nire bidea izan da ekimen politikoaren buru izatea, berriz ere indarkeriaren eta elkarrizketarik ezaren espiralean ez erortzeko. Euskal gizartearen aurrean konpromisoa hartu genuen: blokeoa gainditzeko eta Bakea eta Normalizazio Politikoa lortzeko prozesuan aurrera egiteko bidea proposatzea. Eta bete egin dugu.

Eusko Jaurlaritzak kontsultaren lege-proiektua igorri zuen Eusko Legebiltzarrera, eta Ganberak gehiengo osoz onartu zuen ekainaren 27an.

Onartutako Legeak kontsulta datorren urriaren 25ean egitea planteatzen du, euskal herritarren iritzia jasotze aldera; bake-prozesuari buruz duten iritzia, batetik, eta normalizazio politikoari buruzkoa, bestetik. Badakizue galderak zein diren, baina Politika Orokorrari buruzko saio honetan jasota gera daitezene nahi dut:

Lehenengoa: Ados zaude indarkeriari elkarrizketa bidez amaiera emateko prozesu bat bultzatzearekin, baldin eta ETAk aldez aurretik erakusten badu zalantzarik gabeko moduan indarkeriari behin eta betiko amaiera emateko borondatea?

Bigarrena: Ados zaude euskal alderdiek, bazterketarik gabe, Euskal Herriaren erabakitze eskubidea gauzatzeari buruz Akordio Demokratiko bat lortzeko negoziazio-prozesu batik ekitearekin, eta Akordio hori 2010. urtea bukatu baino lehen erreferendumerara jartzearekin?

Bada, bi galdera xume horien aurrean, PPK eta PSOEek izendatutako Konstituzio Auzitegiko kideek epaia eman zuten pasa den irailaren 11n, euskal gizarteak kontsulta egin diezaioten duen eskubidea konstituzioaren aurkakoa dela deklaraturik; izan ere, haien arabera, euskal gizarteari galdetzeak arriskuan jartzen baitu espainiar nazioaren subiranotasuna.

Eta nik, euskal gizartearen izenean, euskal gizarteari kontsulta egin diezaioten duen eskubidea lapurtu diotela ikusita, hauxe galdetzen dut: zein arazo demokratiko sortzen du gure etorkizunerako funtsezkoak diren bi gairi buruz, alegia, bakeari eta normalizazio politikoari buruz, euskal gizarteak zein iritzia duen jakiteak?

Rodriguez Zapatero jaunak aginduta, galdeketa etenda geratzea lortu da. Garaipen pirrikoa izan da XXI. mendean euskal erakundeei herritarren iritzia jasotzea eragotzi nahi dienarentzat.

Gure eskubidea erreklamatu dugu Europan, iruditzen zaigulako Espainiako Estatuak Giza Eskubideen Europako Hitzarmena urratu duela bere erabakiarekin.

Lehendabizi, erabakitze eskubidea ukatu zitzaigun, Ganbera honek gehiengo absolutuz onartu zuen Estatu Politiko Berriaren Proposamenari atea danba itxita.

Ondoren, galdetzeko eskubidea ukatu zitzaigun, Eusko Legebiltzarrak onartutako Herri-galdeketa Legea debekatuz.

Eta orain, Europako instantzietara jotzeko eskubidea baliatzea ere eragotzi nahi digute.

Bada, ez gara besoak gurutzaturik geratuko.

Bidea zehaztuta dago, eta kontsulta, orain ez bada geroago, saihestezina izango da, zeren erabat sinistuta nago geldialdi politikoa desblokeatzeko eta euskal gatazka konpontzeko giltza dela.

V. 3.- Espainiako Gobernuko presidentek okerreko bidea hartu du, porrot egin duen bidea; menderatzea, inposatzea eta euskal gizartearen gehiengoaren nahiak zapaltzea ez baita izango inoiz konponbidea.

Batzuek diote, sarkasmoz esan ere, bi legealdi igaro ondoren, bi galdera egitea izan dela Eusko Jaurlaritzaren lorpen bakarra –Borjesez zioen sinplifikatzen zaituenak ez zaituela kritikatzeko-; bada, hain zuzen ere, Espainiako Gobernuko presidentek bi galdera ditu mahai gainean, oraindik euskal gizarteari erantzuteke.

- Zergatik itxi dio atea danba, negoziatu ere egin gabe, Estatutu Politiko Berriaren Proposamenari, 2004ko abenduaren 30ean Eusko Legebiltzarrean gehiengo absolutuz onartutako proposamenari?
- Zergatik eten du bere kabuz Herri-galdeketa Legea, 2008ko ekainaren 27an Eusko Legebiltzarrak gehiengo absolutuz onartutakoa?

Bene-benetan, uste dut okerreko bidea hartu duela. XXI. mendean, gatazkak hitz eginez konpontzen dira, ez inposaketaren bidez. Ez da posible estatu demokratiko bateko agintari gorenak ez hartzea kontuan Eusko Legebiltzarraren gehiengo absolutuaren nahiak, arrazoi juridiko faltsuak babesleku hartuta. Aurrean duguna ez da arazo juridikoa, borondate politiko eta demokratikoa da arazoa.

Espainiako Gobernuko presidenteari eskua luzatu nion bere garaian, eta orain ere ez diot ukatuko. Baina ez da beto eta inposizioetarako unea.

Elkarrizketak eta negoziazioak ekarriko dute konponbidea, eta ez inposaketak eta debekuak.

Beharrezkoa da Normalizazio Politikorako akordioa lortzea, euskal herritarrek beren etorkizuna erabakitzeko kontsulta egin diezaieten duten eskubidea errespetatuta. Parte hartzeko eta erabakitzeko printzipio demokratikoa da euskal gatazkaren konponbidearen motorra.

Egin dugun bideak ez dauka atzera bueltarik, baina inor baztertuko ez duen benetako Elkarrizketa-prozesu bati ekiteko gaude oraindik, letra larriz idatzitako elkarrizketari ekiteko.

Ezin zaio iruzur egin euskal gizarteari, tranpaz beteta dagoen eta “kartak markatuta” dituen elkarrizketa politikoa proposatuta. Elkarrizketa politiko horretan, Espainiako alderdiek, PPK eta PSOEk, hemen hartutako erabakiak Madrilen “garbitzen” dituzte ondoren. Euskal gizartearen zati bat kanpoan uzten duen elkarrizketa politikoa da, gainera; interes elektoralek hala agintzen dutenean, milaka herritar ordezkatzeko dituzten alderdi politikoak debekatu eta legez kanpo uzten baitira. Beto-eskubidea duen elkarrizketa da. Alderdi Popularrak eta Alderdi Sozialistak propio horretarako izendatutako Auzitegi Konstituzionalak ezarritako mugek hesitutako elkarrizketa.

Tranpaz betetako elkarrizketa honek, letra xehez idatzitakoak, porrota beste biderik ez du. Aldez aurretik esaten dut, inork euskal gizartea engaina ez dezan. Amaitu da mozorroen garaia, eta adierazpenen arteko lehia.

Elkarrizketan sinesten dut oraindik ere, baina elkarrizketa serioan eta arduratsuan. Letra larriz idatzitako Elkarrizketa, bazterketarik eta betorik gabea, aurrez ezarritako epean Normalizazio Politikorako Akordioa lor dezagun, bai euskal herritarrek duten erabakitzeko eskubideari buruz, bai euskal erkidegoek modu askean erabakitzen dituzten beren arteko lurraldetasun-harremanei buruz, eta, nola ez, baita autogobernu-esparru berriari eta Espainiako Estatuarekin izan nahi ditugun harremanei buruz ere.

Beti esan izan dut, eta berriz ere esango dut: Demokrazian, herrien arteko elkarbizitza-proposamenak ezin dira inposatu; negoziazioaren eta atxikimendu librearen ondorio izan behar dute.

V. 4.- XXI. mendean, konponbideak lortuko badira, herritarrei galdetu behar zaie. Herritarren parte-hartzea debekatzeko duenak, demokraziaren funtsa ukatzen du.

“Herri-galdeketa-aren Legeak subjektu bat badela aurreuposatzen du, Euskal Herria, eta subjektu horrek erabakitzeko eskubidea duela (...), bai eta Nazio Espainiarrak eraturako Estatuarekin negoziatzeko ahalmena ere; hain zuzen, Estatuaren eta bere antolamenduko autonomia-erkidego baten arteko harremana nolakoa izango den negoziatzeko ahalmena”.

“Euskal Herria ez da Estatu gisa eraturik dagoen nazio espainiarraren botere subirano eskusibo baten titularra”.

“Gaur egun Estatuak da bakarra eta zatiezina den Nazio espainiarraren borondate subiranoaren bidez eraturako ordenamenduaren adierazpen formalizatua”.

Espainiako Konstituzio Auzitegiak -Espainiako Gobernuaren, Alderdi Sozialistaren eta Alderdi Popularraren argudio berberak erabilita- epai argia eman zuen pasa den irailaren 11n, zalantzarako tarterik utzi gabe: debekatuta dago euskal herritarrei

galdetzea, arriskuan jartzen duelako bakarra eta banaezina den nazio espainiarraren subiranotasuna.

Azkenean argitu dira zalantza guztiak. Ez dago itxura egiten jarraitu beharrik. Alderdi Sozialistak eta Alderdi Popularrak, Auzitegi Konstituzionala erabilita, argi eta garbi erakutsi dizkigute alanbre-hesiaren mugak. Mozorrorik gabe.

Nazio bakarra dago, nazio espainiarra.

Herri subirano bakarra dago, herri espainiarra.

Euskal Herria ez da existitzen, eta ez du erabakitzeke eskubiderik.

Azken batean, Espainia inperialaren usaina dakarkidaten argudio berberak, diktadura frankistak erabili zituen horiexek: *bakarra, handia eta askea (una, grande y libre)*.

Gaur egun, orduan bezalaxe, Euskal Herriak ez du amore eman.

Konbentzituta gaude Herri izateko eta Herri gisa onartuak izateko dugun eskubideaz. Konbentzituta gaude gure etorkizuna erabakitzeke kontsulta egin diezaguten dugun eskubideaz.

Eta konbentzituta gaude horretarako bide baketsuak eta demokratikoak bakarrik erabili behar ditugula.

Kontsulta soil batek arriskuan jartzen badu, zer eta, nazio espainiarraren subiranotasun sakrosantua, nazio espainiarra benetan oso ahula delako izango da. Ez dugu demokraziaren beldur izan behar. Herri-galdeketak egiteko bidea erraztea da etorkizuna; debekatzea, berriz, iragana. Euskal herriaren eta herri espainiarraren artean elkarbizitza librea izateko modu bakarra dago: euskal herriari elkarbizitza horretaz duen iritzia adierazteko bide ematea. Elkarrekin bizi nahi dugun erabakitzeke ahalmena izan behar dugu. Inork ez digu elkarbizitza inposatu behar. Euskal herritarrei kontsulta egin behar zaie, modu askean iritzia emateko aukera izan dezaten.

“XXI. mendean, herritarrek espero dute sarritan egingo zaiela kontsulta, erakundeetako ordezkariak inperfektuaren ondorioak leuntzeko, eta talde horiei erabakiak hartzeko prozesuan beste era batera esku hartzeko aukera emango zaiela, hartara Erkidegoko kide-sentimendua indartuz”.

Horixe da Europako Kontseiluaren Ministro Batzordeak 2001ean onartu eta estatu kide guztiei zuzendutako gomendioa, herritarrek eremu publikoan izan beharreko parte-hartzeari buruz.

XXI. mendean, konponbideak lortuko badira, herritarrei galdetu behar zaie. Eskubide hori aldarrikatzea ez da iraganari begira jartzea, etorkizuna idazten hastea baizik.

Herriak bere gobernuan parte hartzea, horixe da demokrazia. Herriak ez badu parte hartzen, ez dago demokraziarik.

Azken gogoeta:

Gure Herria inoiz izan duen errenta-, enplegu- eta ongizate-mailarik handiengan jarri dugu. Eta Herri gisa dugun nortasunari uko egin gabe lortu dugu hori.

Erakutsi dugu ez dela egia autogobernua eta erabakitzeko eskubidea irmotasunez defendatzeak pobrezia handiagoa dakarrenik. Alderantziz. Autogobernua eta identitatea hazkuntza eta ongizatearekiko bide paraleloak dira. Hori frogatzeko, hortxe dugu biztanle bakoitzeko errentak, enpleguak eta bizi-kalitateak, bai eta giza garapenaren indizeek ere, azken hamar urteotan Euskadin izan duten bilakaera.

Askatasuna gizakien eta herrien askatasunaren funtsezko osagaia da. Mendekotasunak pobretzea eta frustrazioa eragiten ditu.

Lehendakari naizen aldetik, eta nire Gobernuaren izenean, prest gaude ondo egindakotik ikasteko, baita hanka-sartzeetatik ere, betiere, indarkeriarik gabeko Euskadi oparagoa lortze aldera. Guztion artean eraikitako Euskadi, bazterkeriarik gabe, bere nortasunaren jabe eta munduari zabalik.

Konfiantzaz eta itxaropenez begiratu behar diogu etorkizunari.

Bakearen eta normalizazio politikoaren bidea aurkitzeko gai izan behar dugu.

Elkar hartuta lan egin behar dugu, egoera ekonomiko zailak gainditu eta aurrera egiten jarraitzeko.

Horixe da eta horixe izango da nire konpromisoa eta Gobernu honena ere bai.

Eskerrik asko.